

TOKIKOM

2021eko martxoa | 212. zenbakia

ailkor!

txorierriko aldizkaria



Umeen herria





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

Gure hezkuntza-eskaintza

BATXILERGOA

- ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredua)

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa


GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Automatizazioa eta Robotika industrialak
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Diseinua Fabrikazioa Mekanikoan
- Produktzioaren Programazioa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

Hartu zure etorkizunaren agintea

Kostuaren eta zerbitzuaren
arteko erlazio egokiena

#40 urte, milaka txori



Ate irekiak

Kontsultatu datak eta eman izena gure webgunean.

Zatoz ezagutzera

Derion, Bizkaiko Parke Teknologikoaren ondoan gaude. Gure instalazioak, tailerrak eta laborategiak bisita ditzakezu.

www.txorierri.net

Orientazio pertsonalizatua astearte arratsaldetan.
Eskatu ordua telefonoz.

94 403 40 60

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea





POLITEKNIKA IKASTEGIA
TXORIERRI
S.COOP.

Lanbide Heziketa eta Batxilergoa Ikastetxea

Untzaga Ibaia Kalea, 1 · 48160 DERIO · Tel.: 94 403 40 60 · www.txorierri.net



HEZKUNTZA KOOPERATIVA INTEGRALA
Familiak, Langileak, Enpresak eta Erakundeak
zuzenean parte hartzen dute ikastolaren
kudeaketan.

-  **4** Eretxiak
-  **5** Laburrak eta albisteak
-  **11** Itxialdia
-  **12** Gurean izan da... Maitane Salvador, Kantu Kolore
-  **14** Gaztea eta... Xabier Cuadrado eta David Cosgaya
-  **16** Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
-  **18** Bizkaiko Bira
-  **20** Umeen kontseilua
-  **24** Gure merkatariak
-  **26** Katuen koloniak
-  **28** Txerra Rodriguez soziolinguista
-  **30** Zamudio mugikorraren bidez ikusita
-  **32** Emaus
-  **33** Krisi-garaiak...
-  **34** Aikorrizketa
-  **35** Babestutako edukia
-  **36** Sukaldaritza
-  **37** Denborapasa
-  **38** Agenda



12 Maitane Salvador, Kantu Kolore



30 Zamudio mugikorraren bidez



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa (Lagatzu, Zorritzetan, Arrekikili, Tximintx komunitatea eta Altxora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus



Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
Kolaboratzaileak: Ines Serrano, Iñaki Eguskizaga, Itsasne Zubiri, Txorierriko Mendi Berbalaguna eta Jose Angel Mentxaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Estitxu Perez (688 782 642)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Iratxe Pirla

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 8.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

Aikor! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen edota eretxien erantzukizunik

Beldurrez bizi gara?

Nire lagun bat tematuta dago beldurrekin. Idazteko gai itzela dela dio, eta aipatu behar dudala nire artikuluetan. Ni saihesten ibili naiz denbora luzean, beldurra nire bizitzan aspaldiko lagun/arerioa izan baita. Baina hau agian momentu egokia izan daiteke gaiari buelta bat edo beste emateko.

Mark Twainek esana du: "Nire bizitza gauza beldurgarri bezala egon da, asko eta asko inoiz gertatu ez badira ere". Oso esaldi esanguratsua iruditut zait.

Egia da esperientzia txarrekin gure beldurrak areagotu egin daitezkeela, baina emozio hau unibertsala dela ere denok onartuko genuke, ezta? Are gehiago, oso lagungarria izaten da gure biziraupena, segurtatea eta elkarren arteko bizikidetzak bermatzeko. Beste kontu bat da larregi bisitatzeko bagaitu.

Beldurra, bakarra izan arren, arlo guztiak hartzen ditu bere gain. Hurbilena

fobia izan ahal da: leku garaia, itxia, zabalak, jendearen aurrean berba egitea... Baina badago apur bat sakonagoa dena ere: norbera izatea, maitatua ez sentitzea, bakardadea, pobrezia eta, jakina, zahartu, gaixotu eta hiltzea... Hala ere, aipatu bezala, funtzio bat betetzen du, akuilu egiten digu-eta aurrera egiteko.

Gutaz jabetzen denean, ordea, alde ilunez inguratzen gaitu. Mundua arrisku-tsua dela xuxurlatzen digu, besteengandik isolatu, lagun hurkoa arerio bihurtu, etorkizuna beltzez margotu. Eta orduan zaila izaten da gorpil zoro horretatik irtetzea.

Horregatik, honetan ere filosofia praktikoa kasu eginez, gure bizimoduaren inguruan lantzean-lantzean hausnartzea ona izaten da, horrek laguntzen baitigu erabakiak hartzen. Eta egunero ari gara erabakiak hartzen edo, behintzat, horretan pentsatzen: ikasketak aukeratu, lana aldatu, proiektu bat martxan jarri (edo



INES SERRANO
Filosofian lizentziaduna

bertain behera utzi), lagunaren arteko jarre-rak landu, etorkizuna irudikatu... Eguneroko jardueren konturatzen bagara gure jarrerak beldurrekin lotuak direla, oso informazio preziatua izango dugu, zalan-tzarik gabe.

Pandemia beldurgarriaren garai honetan barruraino sartu digute beldurra. Baina berarekin zer egin geuri dagokigu. Krisi guztiek bezala, honek ere aukerak eskaintzen ditu gure buruaz eta munduaz gehiago ezagutzeko. Beldurra maisu ona ere izan daiteke.

Memoriarako txertoa

Etxean zeozeren bila joan, lau pausu egin eta gure buruari itauntzea: Zertarako etorri naz hona? Ezagunen izena ez gogoratzea, edo mihi-puntakoa, hau da, momentuan esan behar dan hitza ez aurkitzea. Holako ahazteak zahartza-roan jazoten dira, baina baita 25-35 urte tarteko % 25 gazteei be.

Gomuta-galtze horrek garunaren hainbat gunetako neuronen disfunzio-noakaitik suertatzen dira eta horren ondorioak saihesteko edo gitxitzeko esaten da konbenigarria dirala jardun kognitiboa, ariketa fisikoa, elikadura osasuntsua, gizarte-bizitza, ondo lo egitea....



IÑAKI EGUSKIZAGA
Abokatu erretiradua

Baina horreen artean, Erik Kandel (Viena, 1929) psikiatra eta 2000. urteko Medikuntzako Nobel saridunak bere ikerketan idoro eban ariketa fisikoagaz hazurrei darian osteokaltzina hormonak adinagaz gertatzen dan oroimen-galtze hori prebenitzen dauela.

Hari berean Javier Tirapu (Leitza, 1961) neuropsikiatrak jakinarazoten deusku garunarentzat eraginkorragoa dala oinez ibiltea sudokuak egitea baino.

Ikusten danez, memoria-galtze hori berreskuratzeko ez dagoala ondino txertorik; bai, ordea, osasungarria eta merkea dan baliabide bat: oinez ibiltea.

ArtileArtean

Mungialde. 4 - DERIO
946 240 343 / 665 702 751
www.artileartean.com

Familia osorako kalitatezko arreta, zure esku

ZERBITZU BERRIAK
Logopedia
Pedagogia
Kriminologia

clínica dental ZAINDUZ hartz klinika

Txoriemendi etorbidea, 9 - Lorja | Arteaga etorbidea | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentatzaindus.com | www.dentatzaindus.com

tik tak

EGUNEKO MENUA
lehenengo platerra
bigarren platerra
postrea
ogia
edaria

9€

T: 94 454 55 55
Bestorrene 5, Behea
48160 DERIO

Belaunaldien arteko topaketa Gurena egoitzan

Ekintza terapeutikoa izateaz gainera, nagusien eta gazteen arteko topaketek eta bizipenen elkartrukatzek osasuna eta ongizatea sortzen dituzte talde bietan. Horregatik, duela zenbait urtetatik hona, Loiu Gurena zahar-etxea elkarlanean dabil inguruko ikastetxeekin. "Aurten, pandemia dela eta, ez dugu aurrez aurreko topaketarik antolatatu Martxoaren 8aren harira; hala ere, ez dugu errebindikazio-egun hori alde batera utzi nahi, eta bideo bat grabatu dugu; horretan Urdaneta ikastetxeko lau ikasle eta Loiu Gurenako hiru egoiliarrek hartu dute parte", azaldu du Marisol Couceiro zahar-etxeko zuzendariak.

Emakumeen egoera aldatu da azken urteetan eta horrek isla izan du bideoan. "Partekatutako esperientziek agerian uzten dutenez, gizartea gero eta berdinzaleagoa da. Esterako, egoiliar batek kontatu digu lau neba-arreba zirela eta hiru nebek aitarekin lan egiten zutela etxetik kanpo; bera, berriz, amarekin gelditzen zen etxean. Gazteek, berriz, esan dute etxeko betebeharrak berdintasunez banatzen dituztela".

Parte-hartzaileen ustez, aisialdia ere

asko aldatu da. "Gainera, teknologia-aldaketek eragin dituzte harreman toxikoak, zeinetan kontrola eta mendekotasun emozionala nagusi baitira. Gazteen esanetan, gizarte-sareek ezinbesteko eginkizuna dute harreman toxikoetan: alde batetik, genero-indarkeriari buruzko informazioa topatu daiteke bertan; bestetik, bikoteki-dea kontrolatzeko tresnak ere badira".

Nolanahi ere, emakumeek argi dute zuzenbide-arloan izandako aldaketak ez direla nahikoak, legeak aldatu izanak ez duelako gizartearen pentsamoldea aldatzea ekarri. "Hezkuntzan esku hartzea ezinbestekoa da genero-indarkeria ezabatzeko. Sexu-hezkuntza barik, gazteek pornora jotzen dute eta horrek haien garapen indibidualean eta sozialean du eragina, pornoak ez baitu giza sexualitateari buruzko bertsio errealistarik plazaratzen, eta emakumeak gizonen mendean dauden objektu moduan aurkezten ditu. Sexu-hezkuntzak, oster, genero-harreman zuzenagoak aurkezten ditu, adostasunean oinarritutakoak: horrek zalantzan ipintzen ditu gizarte-arau nagusiak eta kaltegarriak".

Txorierriko kaleak morez berriro ere

Pandemiak ez ditu emakumeen aldarrikapenak isilarazi eta, aurreko urteetan moduan, Martxoaren 8an milaka emakume atera ziren kalera genero-ezberdintasunak salatzerako. Arreta bereziki errebindikazio-ardatz hauetan ipini da aurten: zaintzalanak, soldata-arrakala eta genero indarkeria. Era berean, COVID-19ak agerian utzi du hainbat eta hainbat emakume egoera ezegonkorrean bizi direla eta, gainera, genero-ezberdintasunak handitu dituela. Bertako talde feministek eta emakumeen taldeek deituta, Txorierriko kaleak hartu zituzten emakumeek aldarrikapenak ozenki egiteko eta sistema heteropatriarkala ezabatzea inoiz baino beharrezkoagoa dela esateko. Ekintzetan segurtasun- eta osasun-neurriak bete ziren, zer esanik ez! Pandemiak ez du marea morea isilarazi. Bestalde, udalerakudeek ere ekitaldiak antolatu zituzten Martxoak 8 dela eta.



Derio



Zamudio



L. LEIZADLA PLAZA 2 (ZAMUDIO)
946 522 857

OK

OAKLAND

ENGLISH

LOREGARBI GARBIKETA ZERBITZUAK

Gurbi-itxurak, orokorrean
Autokorren konsumatibak
Mantentzeko gurbi-itxurak
Bulegoak eta lokalak
Olinu amiesko garbiketa
Zabur hilerak

Besaide Plaza, 1 - B° Aldekone Tel: 94 406 49 92
48160 DERIO (Bizkaia) 656 712 443
loregarbi@euskalnet.net Fax: 94 406 49 93

Nire Autocasion NA

**IMPORTAZIOA ETA
SALMENTA**

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Espezializatea:
Xalila-lanak
Zoruak

☎ 944522910 - 665703312 - 652772016

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

XURREGOITI JATETXEA
Laurorota etorbidea, 27
48180 Loliu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restaurantxurregoiti.com

Arantza Amondarain Lasa
Ginekologoa

Txarrentzi etorbidea, 9-4
413. bulegoa
48100 Deia

Telefona eta faxa:
94 454 44 98
a.amondarain@euskalnet.net

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami buzoa, 1
Tel.: 94 454 10 08
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALABAITARRA
Elena Lombana (elk. 553)
Tel.: 944 541 377 - Faxa: 944 541 215
10:00-14:00 / 16:00-19:00
(hitzordua eskatu behar da)



Itoiz musika-taldearen material bila dabilta ikus-entzunezko lana egiteko.

Doxa Producciones ekoiztetxeak Itoiz. Udako sesioak ikus-entzunezko lana egingo du eta, horretarako, taldeari buruzko material bila dabilta. "Taldearen erregistroren bat izan dezaketen pertsona guztienta heldu nahi dugu, artikulua, argazkiak, bideoak edo soinu-grabazioak batzeko, taldea 1976an hasi zenetik 1988an desegin zen arte", azaldu dute. Ekoiztetxeak duen informazioaren arabera, bazitekeen Itoiz taldeak 1987an inguruan Lezaman jo izana. "Jaietan eta, antza, jende asko batu zen bertan".

Bestalde, eta ekoiztetxeak gogora ekarri duenez, Itoiz ezaguna izan baino lehen, taldekideak Indar Trabes izenarekin ibili ziren berbenetan jotzen, eta

baliteke baten batek sasoi hartako materiala ere gordeta izatea. "Ziren garaiak kontuan hartuta, badakigu denboraren poderioz informazioaren zati handia galdu dela edo ez dela erregistratu. Era berean, badakigu taldeak jarraitzaile asko izan dituela, eta baliteke partikularren batek bildutako baina argitaratu gabeko materialen bat izatea. Material hori lortzea gustatuko litzaiguke, profesionala edo etxekoa izan". Hori dela eta, taldearen jarraitzaileengana jo dute. "Ziur gaude taldearen Txorierriko jarraitzaileek ere ekarpenak egingo dituztela". Ekoiztetxearekin harremanetan ipintzeko eta materiala bidaltzeko, archivo@doxaproducciones.com helbide elektronikora bidali behar da mezua.

Lezamak Superkopako finalaren baloia zozkatuko du herriko familia behartsuei laguntzeko.



Lezama Saretzen elkartearekin eta Adintsuen Elkartarekin batera, Lezama-ko Udalak kanpaina solidario bat ipini du martxan herriko familia behartsuei laguntzeko. Athleticek Superkopako finalaren baloia, jokalaria guztiek sinatuta, eman du eta hura apirilaren 16an, 12:00etan, zozkatuko da udal-liburutegian. Txartelak herriko dendetan har daitezke apirilaren 11ra arte eta euro bat balio dute. Batzen den dirua Gizarte Laguntzetara bideratuko da.

Ekologistak Martxanek salatu du Asua ibaia kutsatuta dagoela

Martxoaren 22an, Uraren Munduko Eguna izan zen eta Ekologistak Martxan elkarteak Sangroiz Sondikako industriagunera azaldu zen bertan industria-hondakinen zabortege zahar bat dagoelako. Azaldu zuten, industriaguneko enpresa kimiko bateko euri-urak husteko saretik Asua ibaira isurtzen dira, besteak beste, cotrell hautsak, artsenikoa, beruna eta kadmioa.

"Zabortegea duela 15 urte zabaldu zen eta ordutik hona ez du inolako jarraipenik eta segurtasun- edo kontrol-neurririk izan, ingurumenean ahalik eta eraginik txikiena izan dezan; batez ere ibaian. Lixibatuen isuria ez kontrolatzeaz gainera, ez dago inongo itxiera perimetralik, ezta hondakinak isolatzeko edo seinalatzeko sistemarik ere".

Ekologistak Martxan elkartearen ki-deek lixibatuen fluxuak antzeman zituzten, eta uraren eta lurren laginak hartu. Era berean, hondakinak dauden lekuak seina-

leztatu zituzten arriskutsuak direla jakinarazteko, eta 112 telefono-zenbakira deitu zuten kutsadura-fokuaren berri emateko eta osasun publikorako eta ingurumeneko duen arriskua salatzeke. Esandakoaren arabera, lekura Ertzaintza eta Uraren Euskal Agentziako teknikari bat agertu ziren egin beharreko izapideak egitera.

Elkarteak jakinarazi duenez, Asua ibaia Bizkaiko ibairik kutsatuenetako bat da, batez ere beheko arroan eta horrek eragina du Nerbioi-Ibaizabal estuarioaren ingurumen-degradazioan. "Azken hamarkadetan etengabe agertzen dira kutsatzaile arriskutsuak, hala nola zianuroa, artsenikoa eta HCH-lindanoa, eta egoerak ez du hobera egiteko itxurarik". Elkartearen ustez, kutsaduraren jatorria da ibaiaren arro hidrografikoan segurtasunik eta kontrolik gabeko zabortege zaharrak egoitea, Sangroizekoa kasu.

Irakurritako liburuen trukaketa

Apirilaren 23an Liburuen Eguna izango da. Ospakizunaren harira, Emaúseko eguneko zentroak ekimen bat ipini du martxan Derion: Bookcrossing-a. "Zentroaren kanpoaldean kutxa bat egongo da eta nahi duen guztiak bertan utzi ahaliko du dagoeneko irakurritako duen liburuen bat. Gainera, nahi izanez gero, eskaintza ere idatzi ahaliko du. Bestalde, nahi duenak liburu bat hartu ahaliko du eta, animatuz gero, #liburuaskeak eta #Emaús traol-hitzak erabilita, argazkia gizarte-sareetara igo. Argazkiak Emaúsen webgunean ere argitaratuko dira", azaldu dute Derioko egoitzaren arduradunek.



elekma
URRATZEREN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRAK, TELURISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TXAKAK
lehenengo markak • Preziarrik onenak
BOSCH, SIEMENS, BALAY
Txorierriko etorbidea, 25-3.N. 48180 Lora
T: 944 539 232
www.elekma.es

GALAISA Etengabeko ordutegia
Estetika eta ile-apaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51
Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Goiri'78 s.l. Zerbitzu ofiziala
Izarza Pol. 48150 Sondika Bizkaia
94 453 25 15
94 453 39 31

auzoKide
Finken administratzailea
LORENA GAMBOA AGUIRRE
Txorisolo 4, beheko B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Ale-apaindegia
M^a Antonia Llodio TXPI
Txorierriko etorbidea, 6 Tel.: 94 452 02 70 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Alaia fruta-denda
Etxez etxeko zerbitzua Bertoko produktuak
Talleri, 5 48170 Zamudio 94 485 05 85

CuboFit gimnasioa Loion

Loiuko Udalak 2022an hasiko ditu Zabaloetxeko frontoian gimnasio berria eraikitze lanak. Bitartean, aire zabaleko gimnasioa, CuboFit, ipiniko du herritarrek naturan entrenatu ahal izateko. Cubo Fit gimnasioa Zabaloetxeko landan izango da udaberrian eta udan, eta Larrondoko frontoian, udazkenean eta neguan.

Besteak beste, hauek egongo dira gimnasioan: barra olinpikoak, kubilkatzeak egiteko aparatua, harrea-zakua eta gora egiteko soka. Entrenamendu-saioek 45 minutu iraungo dute eta udalaren kirol-ekintza gisa eskainiko dira.



Eatonek Derioko lantegia ixteko asmoa du

ELA sindikatuak jakinarazi duenez, Estatu Batuetako Eaton multinazionalak Derioko fabrika itxi, eta 37 langileak kaleratuko ditu. Horretarako, enplegu-erregulazioko espedienteak (EEE) aurkeztuko du antolakuntzari eta ekoizpenari lotutako arrazoiak argudiatuta. Sindikatuaren arabera, ez dago lantegia ixteko zergati objektiborik eta industriaren alde egiteko deia egin die agintariei. "Beste behin ere, ekoizpena deslokalizatu nahi dute. Gure erakundeek ezin dute beste alde batera begiratu eta tamaina honetako eraso bat onartu". Sindikatuak mobilizazioak iragarri ditu.



Ibilgailu hibridoa erosi du Deriok, eta beste udaltzain bat kontratatu

Derioko Udalak adierazi duenez, "herritarren segurtasuna indartzean inbertitzea udalaren lehentasunetako bat da". Hori dela eta, ibilgailu hibridoa erosi dute, zeinek "udaltzaingoaren egungo automobil-parkea modernizatzeko baitu". Horrezaz gainera, udalak berariazko plaza bat sortu du ofizialorde bat kontratatu ahal izateko. Hortaz, udaltzaingoak zazpi kide ditu: danik lau udaltzain, bi udaltzain lehen eta ofizialorde berri bat.

Udalaren esanetan, plantilla berritzeaz eta sendotzeaz gainera, ofizialordea kontratatu izanak udaltzaingoaren beraren berrantolaketa ekarri du, "eta horrek ahalbidetuko du udalerriko segurtasuna indartzea, herritarrei zerbitzu hobea eskaintzea eta osasun-krisiaren eskakizun operatiboei aurre egitea". Beste aldetik, Derioko Uda-

lak 45.000 euro ipini ditu ibilgailu berria erosteko. Mitsubishi Outlander ibilgailu hibridoa da. "Beraz, ingurumena babestearen aldeko apustua da, CO2 askoz gutxiago isuriko delako. Halaber, motor elektrikoa eta termikoa uztartzen ditue-nez, ibilgailuaren kontsumoa eta mantentze-kostuak ere murriztuko dira". Ibilgailu berriak lau gorpileko trakzioa du, bost ate eta bost eserleku, eta 160 zaldi-potentzia baino gehiago. Era berean, dagozkion bereizgarria eta polizia-ekipamendua izango ditu: besteak beste, bozgorailua, sirena, bi su-itxalgailu eta segurtasuneko manpara. Kargatzeko gunea Kultur Biri-kako garajearen ipiniko da. Udalak aipatu duen moduan, udaltzain guztiak ibilgailu hibridoak eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa egiten dabilta.



LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai leaguru Facebooken

ELORRIETA
INSTALACIONES
ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA
Urbe kalea, 12 behea Derio 48160
94 454 03 86
639 57 98 48 - 639 58 25 47

RPS: 184/10
TIKA IKUSLAN
Arbolantxa kalea 5, behea
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

ZAMUDIO
Loteria Nazionala
Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Larrabetzuko plazak aterpe berria du



Gune estalia udaletxearen ondoan dago, Askatasuna plazan. Azaldu duteenez, plazak garrantzi eta zentraltasun handia du, bertan gizarte- eta aisialdijarduera asko egiten direlako, baina, hala ere, orain arte ez du estalitako leku irekirik izan. "Aterpeak gabezia hori arintzea du helburu, eguraldi txarretik babestutako gune bat sortuz, irekia, aireztatua eta argitsua". Lanetan 244.820 euro ipini dira; Bizkaiko Foru Aldundiak 44.915 euroko laguntza eman dio udalari, eta Eusko Jaurlaritzak, 72.994 euro.

Aterpeak solairu bi ditu. Beheko solairua diafanoa da eta bertan barra txiki edo erabilera anitzeko txosna ireki bat dago, aterpean egiten diren ekitaldien osagarri gisa erabiltzeko. Beste aldetik,

goiko aldean solairuarte txiki bat atondatu da eta hara eskaileretatik igo daiteke. Gainera, esandakoaren arabera, aurreikusitako, udaletxearen birgaitze-lanak amaituta, solairuarteak Osoko Bilkuren aretora sarbide zuzena izatea. "Eguraldi txarretik babesteaz gainera, solairuarteak hainbat erabilera izan ditzake, esaterako, agertoki moduan"

Udalaren esanetan, "eraikinak irudi garaikidea eskaintzen duen arren, tokiko tradizio arkitektonikoa errespetatzen du, bai erabilitako materialengatik, bai lehen zegoen eraikinaren formari eta bolumenari eusten dielako. Aukeratutako materialak – egurra, harria eta tratatutako harri-itxurako hormigoia– oso ondo integratzen dira inguruan".

Hobekuntzak Derioko argiterian

Derioko Udalak jakinarazi duenez, 32.251 euro ipiniko ditu herriko argiak hobetzeko. Guztira 81 argi kendu, eta haien ordean LED bonbillak jarriko dituzte. Ordezkatze-lanak apirilean egingo dira Uribe parkean, Gorbela eta Larrabari kaleetan eta haien inguruan. Egitasmoak hiru helburu ditu: eraginkortasun energetikoa hobetzea, berotegi-efektuko gasak murriztea eta, argiztapen-maila eta -kalitatea handituz, herritarren segurtasuna bermatzea.

Inbertsioa herriko argiak modernizatzeko planaren barruan dago. Horri lotuta, udalak gogora ekarri du iazko otsailean 127.000 euroko inbertsioa egin zela herriko 19 gune LED argiak ipinita indartzeko, hala nola Maurikobaso eta Doneztebe bideak, Mikel Deuna plaza eta institututik gertuen dagoen autobus-geralekua. Era berean, baserri batzuen sarrerako argiak aldatu ziren, eta argi berri bi ipini.

"Argiak berritzeko prozesua orain dela hiru urte baino gehiago hasi genuen eta dagoeneko 500 argi baino gehiago ordezkatu dira", esan du Esther Apraiz Derioko alkatea. Bere hitzetan, LED teknologiak energia % 50 - % 70 aurrezteko ekarriko du, argi-kantitatea eta -kalitatea handiagoa ekarriko du eta, hortaz, herritarren segurtasuna hobetzen lagunduko du.

Loiuk Athletic Club Fundazioarekin egin du bat

Ekimena zeharkako lankidetzarenduan oinarritzen da eta ondasun komunari eta fundazioaren garapen jasagarriaren helburuei lotutako hitzarmenak ditu ardatz. Hala, Athletic Club Fundazioaren eta Loiuko Udalaren arteko akordioaren helburua da udalari horretan fundazioaren gizarte-, ingurumen-, kirol- eta kultura-ekitaldiak egin ahal izatea.

Horretarako, eta Josu Andoni Begoña Loiuko alkatea bere webgunean jakinarazitakoaren arabera, besteak beste hurrengo ekintza hauek egingo dira: walking football, nagusientzako ergonomia ikastaroak, kirol-nutrizioaren gaineko heziketa eta Thinking Football zine jaialdia.



Sondikak Artxandako lursailak lagako dizkio Bilbori, ingurua aktibatzeke planaren harira



Xabier Zubiaur Sondikako alkateak eta Juan Mari Aburto Bilboko alkateak aurkeztu dute Artxanda Aktibatzeke Plana. Egitasmoak Artxanda berreskuratzea eta topaketarako leku berria bihurtzea ditu helburu, eta, alkateek aurreratu dutenez, laster hitzarmen bat sinatuko dute Sondikak bertan dituen lursailak Bilbori lagatzeko.

Lekuaren izaera naturala eta jasangarria zainduta, planaren xedea da Artxanda indartzea, adin guztietako jendea hara erakartzeko eta ingurua ekonomikoki suspertzeko. Horretarako, Bilboko Udal

ahaleginduko da familientzako aisialdiko eskaintza zabala egiten.

Joan den urtean, Hatz-markaren parkea berrurbanizatu zen, eta datozen hila-beteetan sei kilometro baino gehiagoko pasalekua egingo da Enekuritik Santo Domingoraino. Pasalekuak begiratoki berriak eta argiak izango ditu eta handik oinezkoak zein trafiko baretua pastuko dira. Era berean, 66.700 metro koadroko parkea atonduko da futbol-zelaiaren inguruan eta Hatz-markaren parkearen ondoan. Azaldutakoaren arabera, adin

guztietako pertsonak disfrutatzeke parkea izango da eta baliteke, besteak beste, bertan ipintzea berotegi botaniko bat, aintzira artifizia bat, ur gaineko pasarela eta umeentzako jolastoki naturalizatuak. Bestalde, Burdin Hesia berreskuratzea egitasmoaren beste helburu bat da, eta Bilboko Udalak bisita gidatuak antolatzeko eta berritze birtualak egiteko asmoa du.

Adierazi duten moduan, Bilboko Udalak Artxandaren balioa azpimarratu nahi du eta, horretarako, ekintza ludikoak, pedagogikoak eta kirol arlokoak baliatuko ditu asteko egun guztietan. Euren esanetan, ekintzak baliagarriak izango dira enplegua sortzeko eta adin guztietako jendeari eskaintza berezituak egiteko. Artxandan eskainiko diren ekintzen harira, inkestak egin dira jakiteko herritarrek zein nolako eguneko aisialdia eskatzen duten. Txorierriko, Bilboko, Ezkerraldeko, Eskualdeko eta Nerbioi-Ibaizabaleko biztanleek, Artxandan dauden eskoletako ikasleek eta Txorierriko industria gunetaako langileek hartu dute parte inkestetan.

Xabier Zubiaur Sondikako alkateak gogora ekarri du Artxanda bilbotarren eta sondikoztarren arteko topagune naturala dela eta nabarmendu du plana XXI. menderako egitasmo estrategikoa dela eta bat egiten duela inguruarekin eta bere gaur egungo eta historiako ezaugarriekin.



Orrialde honetan, Itsasne Zubiri sondikoztarrak konfinamenduak inspiratutako margolan-saila aurkeztuko digu.



Besarkada bat eskatzen du gure barneak, kanpotik barrurantz zeharkatzen gaituena. Bizitzako kilikilia, eguneroko sorpresa, familiarren oinarria, lagunaren edabe magikoa. Besarkadak badoaz, besarkadak badatoz, eta joan-etorrian inguratzen gaituzte, sakon, dantza ederrean, irribarrean. Bizitza! Gaixorik gaudenean osatzen gaituzte, indartzen gaituzte, atea zabaltzen digute bidean batera jarraitzeko, baina oraingo gaixotasun berri honekin, gizakia bakardadean geratzen da. Gaixorik eta bakarrik, maitasunari ere uko egin behar?

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06

ERREKA JATETXEA



Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta,
enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnoa: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

GAMINIZ JATETXEA



Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212, Parke Teknologikoa
48170 Zamudio · Bizkaia
GPS: 2°51'41" W 43°17'37"N

www.gaminiz.com

ASTIKENEMOTOR



www.astikenemotor.com

DERIO - 946 451 781

PATXI KOOP



PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Bazkaria: 48170 Zamudio (Bizkaia) · Tel: 944 320 007 · info@patxi.koop · www.patxi.koop

“Oso positiboa da umeak musikaren bidez heztea”

MAITANE SALVADOR | Kantu Kolore taldeko abeslaria

Kantu Kolore taldeak *Ametsen urtebetetzea* ikuskizuna ekarri zuen martxoan Deriora. Gurea Aretoan batu ziren umei ez ezik gurasoei ere gozarazi zieten agertokia doinu eta kolorez beteta. “Kontzertu zoragarria izan zen, eta giroa ezin hobea. Aretora hurbildu ziren guztiek hartu zuten parte ikuskizunean eta etxeko giroan sentitu ginen. Publikoaren berotasuna ere jaso genuen!”

t: Itxaso Marina Ondarroa

COVID-19a dela-eta aldatu behar izan duzue ikuskizunaren formatua.

Bai, hasiera batean erromeria moduan egiten genuen eta. Pentsatu behar izan genuen, gure esentzia galdu barik, nola gauzak erakutsi eta, aldi berean, nola ondo pasatu; gainera, modu seguru batean nola egin ere hausnartu behar izan genuen. Antzerki musikatua sortzea otu zitzaigun, antzezlan-zati gehiago sartuz eta istorioan gehiago sakonduz; hau da, musikalen egiturari jarraitzea. Gainera, dantzatzeko modua ere eskaintzen dugu, eserita eta gorputz-perkusioa erabilita. Ikusleek oso erantzun ona adierazten dute eta azkenetako areto osoa dantzan.

Esna zaitez bigarren lana konfinamenduan sortu zenuten.

Egunak ordu asko ditu eta denbora

behar da kantu bat sortzeko eta hari forma emateko; egia da egunerokotasunean, beharbada, ez dugula hainbeste denborarik, baina konfinamenduan denbora antolatzeak aukera izan genuen. Gainera, diskoa egiteko irrikan geunden eta, bestalde, egoeratik urruntzeko modua ere izan zen. Abestiak etxean sortu genituen eta Madrilgo ekoizleari bidali genizkion nahasketak egiteko eta ekoizteko. Zati bat Xabi Aburruzagaren estudioan, Zamudion, grabatu genuen, eta beste zatia, Madril. Masterizazioa Londresen egin zen; hortaz, nazioarteko diskoa dela esan daiteke, eta oso esperientzia polita.

Zein da Kantu Koloreren iturburua?

Taldeakideok musikan eta hezkuntzan gabilta eta zera pentsatu genuen: Zergatik ez ditugu kutsu didaktikodun kanta batzuk sortzen, baina gaur egungo musika erabilita? *Zazpi kolore* abestia proba

gisa atera genuen eta oso erantzun ona izan zuela ikusita lehen diskoa kaleratu genuen, eta *Ametsen urtebetetzea* pelikula. Guk bi urtetik 12 urtera bitarteko umeentzako abestiak egiten ditugu eta guztiek kutsu didaktiko bat dute, helburu bat. Gure materiala asko erabiltzen da ikastetxeetan eta www.kantukolore.eus webgunean ere proposamen didaktikoak ditugu. Lankideentzako materiala sortzen dugu azken batean; ohorea da eta aurrera jarraitzea animatzen gaitu.

“Bi urtetik 12 urtera bitarteko umeentzako abestiak egiten ditugu eta guztiek kutsu didaktiko bat dute, helburu bat”

Berebiziko garrantzia ematen diozue musikari; beste bide batzuk baino eraginkorragoa da hezteko?

Bai, musikaren bidez heztea posible delako, esaterako, aditzak zer diren, zuhaitzen izenak... Askotan, umeentzako gauzak sortu dira, baina ez da musika hainbeste kontuan izan. Nire ustez, oso positiboa da umeak musikaren bidez heztea eta musikak badu zeozer, botere, berezi bat. Bide batez mezu didaktiko bat eta helburu zehatz bat lantzen baduzu, eta, gainera, mezua heltzen bada eta ikasleek ikasten badute, bada, bikaina da. Beste aldetik,





gustatzen zaigun musika erabilia sortu ditugu abestiak eta disko bietan familia osorako kantak daude, hainbat estilokoak... autoan goazela ez esateko –Hara, umeen txanda da orain; hau bai tormentua! (kar-kar). Ahalegintzen gara kanta alaiak, positiboak eta gaurkotuak egiten.

“Ahalegintzen gara kanta alaiak, positiboak eta gaurkotuak egiten”

Zer dela-eta zarete hain talde arrakastatsua?

Egia esan, ez dakit. Familia bat gara, edozein familia bezalakoa, eta normaltasun hori islatzen dugu. Halaber, edonork abestu ditzakeen kantak egiten ditugu... Inoiz ez dakizu egitasmo batek funtzionatu duen ala ez, baina oso pozgarria da aurrera egiten duela ikustea.

Zazpi kolore abestia kaleratu zenean imajinatzen zenuten proiektuak egungo ibilbidea hartuko zuela?

Bai zera! Eta zer esan nezake neuk *Nire gorputza* da abestiari eta *Peru krokodiloari* buruz?... Mezuak heltzen direla uste dut eta hori taldearen arrakastaren arrazoietako bat izan daiteke, agian; baita musika gaurkotua egiten dugula ere. Era berean, bideoak lagungarriak izan daitezke proiektuak funtzionatu dezan.

“Mezuak heltzen direla uste dut eta hori taldearen arrakastaren arrazoietako bat izan daiteke”

Balioak lantzen dituzuen zuen abestietan: elkartasuna, begirunea...; natura da disko berriaren abiapuntua.

«Esna zaitez, planetak behar gaituela-ko». Gizartea, mundua... zeharo aldatzen ari dira eta gure esku dago planeta ondo joatea edo ez. Mundu hobe baten aldeko aldarrikapena egin nahi izan dugu eta kantu guztien izenburuak batuta testu txiki bat osatu dugu, zeinetan diskoaren helburu nagusia islatzen den.

Solidaritaterako tartea ere badago hor, Zuekin kantaren deskargen bidez batutako dirua Ndak Ndak elkarteari eman baitiozue.

Diskoa pentsatzen hasi ginenean, argi izan nuen umeen eskubideen aldeko abestia egin nahi nuela. Eredu izan nahi dugula ere argi dugu taldekideok eta hausnartu genuen zein elkarteri lagundu ahal genion. Ndak Ndak Bergarako elkar-tea da, Senegalen eta Euskal Herriaren arteko kulturartekotasuna bultzatzen du, eta gogoratu genuen haiek gizarte-sareetara igotako bideo bat ikusita genuen-

la, non gure kantuetako bat abesten eta dantzatzen zuten. Haiekin harremanetan ipini ginen eta oso kolaborazio polita egin dugu. Abestian hartu dute parte Orfeoi Txikiak, Gontzal Mendibilek, Aiora Renteriak eta Mikel eta Esti Markezek, eta Umeen Eskubideen Nazioarteko Egunean aurkeztu genuen. Emaitza oso polita izan da, eta jendeak ere oso ondo erantzun dio ekimenari; beharbada, jende helduagoa- rengana ailegatu gara.

Kolorez eta kantuz beteta dator etorkizuna?

Egitasmoarekin aurrera jarraitzea gustatuko litzazuke. Kontzertuak-eta egiten ditugu horretarako, izan ere, baliabide handiak behar dira egitasmoni behar moduan heldu ahal izateko. Lantzeko gai asko daude eta irakasleen ikuspuntutik aukera polita da material hori eskura izatea. Guk tartetxo bat dugun guztietan proiektuari ekiten diogu eta dagoeneko hiru kanta ditugu zirriborratuta-edo.

“Lantzeko gai asko daude eta irakasleen ikuspuntutik aukera polita da material hori eskura izatea”

Denbora aurrezteko armairu adimendua

XABIER CUADRADO ETA DAVID COSGAYA | ekintzaileak



Gazteak Mekanizazioko Erdi Mailako Heziketa Zikloa ikasten dabilta Politeknika Ikastegia Txorierrin, eta armairu adimendun baten proiektua aurkeztu zuten Txorierriko Ekintzailetzarako Ideien Bideo Lehiaketara. Armairuak denbora optimizatzen laguntzen du arropa aukeratzeko orduan, eta ideari esker lortu dute lehiaketa irabaztea.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Azaldu digutenez, inkesten emaitzak irakurrita jakin izan dute arropa aukeratzeko hilabetero batzuek beste 70 minutu ematen ditugula. "Denbora gehiegi iruditzen zitzaien eta pentsatu genuen denbora aurrezten lagundu ahal ligukeen armairua garatzea. Gaur egun halako armairurik ez dagoela ikusi genuen eta ideia lantzearekin genion". Ondorioa armairu adimendua bat izan da, zeina, agindu erraz batzuk jaso ostean, arropa aukeratzeko gauza baita.

Armairu adimendua ordenagailua duen biltegi egituratu bat da. "Norberak pentsatu behar du praktikak zein konpar-

timendutan gorde nahi dituen, jertseak, zapatak, berokiak... Jantzi berri bakoitzaren erregistratu behar da, eta armairutik kendu duguna ezabatu. Gainera, arropa sailkatu daiteke, esate baterako, uda edo neguko arropa, hondartzara joateko jantziak edo lan-elkarriketarako arropa. Armairuan pantaila bat dago eta bertan komando batzuk idatzita, edo horiek ahoz esanda, altzariak arropa aukeratzeko du. Bestalde, iradokizunak ere egin ahal izango dira; horretarako, guk aurretik hautatutako arropa-konbinazioak hartuko dituzte kontuan".

Haiek armairuaren piezak egin ahal izateko, lituzketen arren, egitasmoa gauzatu ahal izateko, besteak beste, programatzaile

"Komandu batzuk idatzita edo ahoz esanda, armairuak arropa aukeratzeko du eta iradokizunak ere egingo ditu"

informatiko baten laguntza beharko lukete, motorra ipini ahal izateko moduko armairu handi bat, tablet bat, osagai elektronikoak, bozgorailuak eta batez ere finantzazioa. Euren kalkuluen arabera,

armairua 1.500 euroan saldu liteke merkatuan. "Egia esan, ez dugu armairua epe ertainean egitea pentsatu, baina gustatu-

"Gustatuko litzaiguke inoiz ideia gauzatu ahal izatea, ilusio handiz, ordu asko egin baititugu ideia garatzen"

ko litzaiguke inoiz ideia gauzatu ahal izatea. Izan ere, ordu asko egin ditugu ideia garatzen eta prozesua ilusio handiz bizi izan dugu. Bestalde, armairua lagungarria izan liteke jende askorentzat eta edonork arazo barik erabili lezake; umeez zein nagusiek ere bai".

Infinity Furnitures

Gazteen ustez, beharbada, publiko zabalerako egitasmoa izateak lagundu die lehiaketa irabazten. "Edozein pertsonak erabiltzeko moduko armairua da. Era berean, ondo ezagutzen dugun gaia da, armairua egunero zabaldu eta itxi behar dugulako arropa aukeratzeko. Beste aldetik, eskerrak eman nahi dizkiegu egitasmoa diseinatzen lagundu ziguten guztiei eta tutoreari". Etorkizunean ikusiko dugu gazteen armairu adimendua merkatuan dagoen ala ez; bitartean, proiektua lehiaketara aurkezteko izan bada ere, enpresaren izena aukeratu dute: Infinity Furnitures.

EGAZ Txorierrik eta Politeknika Ikastegia Txorierrik antolatzen dute Txorierriko Ekintzailatzarako Ideien Bideo Lehiaketa. Bizkaiko Foru Aldundiak eta Txorierriko Mankomunitateak sustatzen duten Gaztedi programaren barruan dago eta ikastegiko ikasleentzat eta Txorierrin errolatutako 16 urtetik 29 urtera bitarteko gazteentzat da. Epaimahaiaren iritzi, Cuadradora eta Cosgayarena ideiarik onena izan da aurtengo eta proiektu interesgarria izan daiteke etorkizuneko ekintzailatzari begira.

Sortzaileak

Xabier Cuadrado (19 urte) eta David Cosgaya (17 urte) Galdakaokoak dira eta biek Mekanizazio Erdi Mailako Heziketa Zikloa ikasten dute Politeknika Ikastegia Txorierrin; horren harira, enpresa-praktikak hasi berri dituzte.

Behin gaur egun egiten dabilen ikasketak amaituz gero, Cuadradori gustatuko litzaioke Produzioaren Programazioko Goi Mailako Heziketa Zikloa ikastea, baita fabrikazio mekanikoko diseinua ere. "Nire burua ikusten dut CNC programak egiten, hau da, piezak egiteko aginduak ematen. Ikasten jarraitzea eta lana eta prestakuntza uztartu ahal izatea ere gustatuko litzaioke".

Cosgayak, bestalde, adierazi du buruan ideia asko dituela eta prest dagoela edozein aukera aztertzeko. "Nik ere fabrikazio mekanikoko diseinua ikasi nahiko nuke, baina marketina ere asko gustatzen zait. Ahal dela, piezak programatzea gus-



tatuko litzaioke, edo haiek diseinatzea, interesa dudalako kreatibitateari lotutako guztian. Ikasten jarraitzearekin ere ez nioke ezetz esango".

Gazteen ustez, beharbada, publiko zabalerako egitasmoa izateak lagundu die lehiaketa irabazten



Kale garbiketa | Hondakinen bilketa eta garraioa | Ur eta estolda sareen mantentze lanak | Hiri-altzarien mantentze lanak | Lorezaintza zerbitzuak | Eraikin eta lokalen garbiketa | Hondartzen garbiketa zerbitzuak | Garbiguneen kudeaketa eta mantentze lanak | Lurzoruen deskontaminazio lanak | Ingurumen-aholkularitza | Beste zerbitzu batzuetarako, galdetu.

Ibáñez de Bilbao, 3. 2. solairua, 48001 BILBAO

TEL. 94 424 38 34



Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Hemendik aurrera okela eta arraina ere edukiontzi marroira

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak hondakinei buruzko kanpaina bat abiatu du: “Txorierrri, murritzeko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko gomendioak”.



Edukiontzi marroian **BOTA AHAL DIREN HONDAKINEN ZERREDA:**

- Animalia-hondakin kozinatuak edo gordinak (haragi-, hestebete-, arrain- eta itsaski hondakinak, arrautza-hondakinak eta beren azalak, hezurak zein gaztaia).
- Landare-hondakin kozinatuak edo gordinak (fruta-hondakinak, barazkiak, lekaleak, pasta eta arrozak, haziak).
- Lore- eta landare-hondakinak, baratze-hondakinak, belarra eta inausketa-hondakinak.
- Kafe-hondarrak eta -iragazkiak, te-poltsak, ogi-hondakinak, galletak eta opilak, fruitu lehorrak eta beren azalak, fruta-hezurak eta kortxo naturaleko tapoiak.
- Sukaldeko papera, paperezko ezpainzapiak eta mahai-zapiak, kartoizko arrautzontziak eta uhin-kartoi zikina (guztiak materia organikoarekin bustiak).
- Broxeta eta bestelako elikagaietarako makilak, izozkien makilak eta antzekoak.
- Txikoria, algak, alpestea, karameluak eta gozokiak, zerealak, irina, marmelada.
- Poltsa, ontzi eta tresna konpostagarriak.

EZIN DIRA bota edukiontzi marroian honako hauek:

- Erratzarekin batutako hautsa.
- Zigarro muturrak eta hautsontziko hondakinak.
- Errautsak.
- Animalien gorotzak.
- Katuen hondarrak.
- Lorontzietako lurra eta zohikatza.
- Olioia edo beste edozein likido, jatorria edozein dela ere.
- Pardelak, konpresak eta tanpoiak.
- Paper-zapi bustiak.
- Tiritak, esparatrapuak, kotoia, belarrietarako kotoi-txotxak.
- Sukaldeko papera, paperezko ezpainzapi eta mahai-zapiak, arrautzontziak eta uhin-kartoiak, garbiak badaude, hots, edozein substantziaren hondakinik ez badute.
- Eranskailuak eta gainerako elementu itsasgarriak (fruten azaletan datozenak kendu behar dira edukiontzi marroian bota baino lehen).
- Konpostagarriak ez diren poltsak eta ontziak.



Martxoaren 1etik aurrera, txorierritar guztiok hainbat hondakin utzi ahal ditugu edukiontzi marroian: okela, arraina, itsaskiak, arrautza-azalak... Horrela, gainerako udalerriok bat egiten dugu Zamudiorekin, izan ere lehenagotik egiten zuten.

Hori da Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak martxoan egiten ari den kanpaina azalduko den alderdietako bat. Bizkaiko Foru Aldundiak diruz lagundutako kanpaina honetan, besteak beste, azpimarratuko da orain arte errefuserako edukiontzira botatzen genituen hondakin organiko horiekin kalitatezko konposta sor litekeela. Zaborra izatetik baliabidea izatera pasatuko dira, beraz.

Hondakin organiko horiek zuzenean utz daitezke edukiontzian edo poltsa konpostagarrietan, inoiz ez plastikozko poltsetan. Edukiontzi marroiak erabiltzeko ezinbestekoa da giltza izatea. Oraindik ez baduzu, deitu Mankomunitatera edo zure udaletxera eta galdetu nola lor dezakezun.

Kanpaina herritarrek kontzientzia nahi dira ez ditzaten utzi kalean edo mendian tamaina handiko hondakinak eta altzariak. Zer egin behar dugu behar ez ditugun koltxoi, aulki, telebista eta abarrekin? Derioko Garbigunera eraman beharko ditugu edo udaletxera deitu eta bilketa zerbitzua eskatu. Biak dira doakoak. Horrez gain, kanpaina honen bidez, plastikoa ahalik eta gehien murriztu nahi da, batez ere erabili eta botatzeko plastikoak.

Udaletako webguneetan eta Mankomunitatekoan, kanpainaren banerra ikusiko duzu, bertan sartuz gero murrizteko, berrerabiltzeko eta birziklatzeko informazioa eta aholkuak aurkituko dituzu: www.txorierronka.eus/eus/

Hondakinen bilketa selektiboarekin zure hondar alea jartzen duzu **Txorierrri Jasagarriagoa** izan dadin.





Gertuko erosketak, gertuko hizkuntzan.

Txorierrin baino hobeto, non?

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak "Euskararen Laguna" egitasmoa abian jarri du. Proiektu honek merkataritzan euskara sustatzea du helburu eta Mankomunitatea osatzen duten sei udalerritan eskainiko da: Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudion, hain zuzen. **Doako aholkularitza, itzulpen eta maketazio zerbitzuen** bitartez merkatariei lagundu eta herriko euskara paisaia hobetuko du proiektu honek, besteak beste.

Ez dugu ahaztu behar erosketak herriko dendetan egiteak tokiko ekonomiar laguntzen diola. Gainera erabiliko diren kartel, errotulu eta bestelakoek kalitatezko irudi bateratu bat ematen dute eta horrez gain saltoki horietan euskarazko harrera izateak balio erantsia ematen dio zerbitzuari. Hortik kanpainaren, leloa: "Gertuko erosketak, gertuko hizkuntzan. Txorierrin baino hobeto non?"

Proiektu honen bidez, euskara bultzatu nahi da mankomunitateko merkataritzan, eta horretarako bezeroei eus-



karaz hitz egiteko aukera ematen dieten establezimenduak erraz aurkitzen lagunduko diegu.

Saltokien sare honetan parte hartzen duten establezimenduek **Euskararen Laguna** egitasmoaren irudia jarriko dute kalera begira (atean, erakusleihoan edo

lekurik ikusgarrienean), bezeroek hori ikustean, bertan euskaraz egin dezaketela jakin dezaten. Era berean, lehen hitza euskaraz egiteko konpromisoa hartuko dute eta euskaraz egin nahi duen bezeroari aukera hori ahalbidetuko diote ahal duten neurrian.

Egitasmo hau euskararen esparruan pausoak eman nahi dituzten establezimenduei begira dago. Saltokien sareak zubia eraiki nahi du euskaraz artatuak izan nahi duten bezeroen eta horretarako gaitasuna duten saltokien artean.

Baita horretarako nahia eta borondatea adierazten dutenen artean ere, nahiz eta azken hauek gaur egun ezin duten bezeroa euskaraz artatu.

Horregatik langileen euskara maila, edozein dela ere, ez da traba bat izango programa honetan parte hartzeko, abiapuntua baizik. Bakoitzak ahal duen neurrian erabiliko du gure hizkuntza, euskara salerosketetarako ere guztiz erabilgarria baita.

Euskararen laguna egitasmoan parte hartzeko funtsezko bi ezaugarri bete beharko ditu establezimenduak, batez ere bezeroaren arreta eta jendaurreko idazkiei dagokienez: jendaurrean ipintzen diren idazki eta iragarki komertzial guztiak euskaraz ala ele bietan edukitzea edo ipintzeko konpromisoa hartzea; eta lehen hitza euskaraz egitea edo egiteko konpromisoa hartzea, herritarrei **euskarra erabiltzeko gonbidapena eginez**. Gutxiengo hauek betetzen laguntzeko Txorierriko zerbitzuen mankomunitateak, egitasmo honen bidez, doako aholkularitza, itzulpen eta maketazio zerbitzua erabiltzeko aukera emango die merkatariei guztiei.

Informazio gehiago nahi izanez gero:
688 665 112 (Mirelur Ojeda)
merkataritza@txorierrri.eus



Bizkaiko Bira mendiz mendi

Hilean behin, inguruko mendietatik irteerak antolatzen saiatzen da Txorierriko Berbalagun bere egitasmoaren baitan, baina berbalagun batzuok pentsatu genuen martitzeneko ere irteera egitea. Esan eta egin: hitzordua martitzenetan, goizeko 8,30ean, ipini genuen Derioko Kultur Birikaren ondoan eta horrela hasi ginen.



t/a: Txorierriko Mendi Berbalaguna

Asteartero nora joan asmatzen ibili beharrean, luzaroko proiektu batean sartu ginen: GR 123 ibilbideari jarraituta, Bizkaiko Bira oinez egitea, mendiz mendi. Bizkaiko Bira 2019. urteko urrian hasi genuen Portugaleteko Zubian, eta 2021. urteko urtarrilean amaitu, leku berean. Birusa dela eta, erabateko konfinamendua izan da bitartean, herrietako konfinamendua... Beraz, luze jo du.

GR123a Bizkaiko perimetrotik doa eta 400 kilometro inguruko luzera du. Kantabriarekin muga egiten joan ginen hasieran, une batean Burgosekin, eta Arabako eta Gipuzkoako mugatik igaro ondoren Kantauri itsasoa du mugakide. Ibilbidea berez 18 etapatan dago banatuta, baina luzeegiak dira guretzat eta horregatik laburtu ditugu: 15-20 kilometroko etapak egin ditugu; guztira 25. Nolanahi ere, ezin izan ditugu etapa guztiak laburtu eta batzuk luzeagoak izan dira: Lanzas Agudas (Karrantza) – Balmaseda (21 km), Otxandio – Elorrio (23 km) eta Bakio – Plentzia (21 km); baina gehienak 15 km ingurukoak izan dira. Igo ohi izan dugun altuera ere ez da gehiegizkoa izan, ibilbidea ez baita mendi-tontoretatik pasatzen. Salbuespenak izan dira Serantes, Zalama, Kolutza, Oderiaga, Teillamendi eta Ermua mendiak; hala ere, ez dira oso altuak.



Astearen arabera, lau eta zazpi lagun arteko taldea izan gara. Nola konpondu gara joan-etorriak egiteko? Bada, dene-tarik egin dugu: auto bi eroan eta haie-tako bat ibilbidearen amaieran utzi eta besteaz ibilbidearen hasierara joan; auto bakarra eroan eta lagunak katigatu gure bila etortzeko; eta autoa, autobusa eta taxia uztartu (azken hori nahikoa erabili dugu eta oso aukera ona izan da). Azken etapetan, bestalde, autobusa erabilia konpondu gara joan eta etortzeko.

Ibilbideari dagokionez, etapa batzuk ondo markatuta daude eta laguntza ba-rik egin daitezke; beste batzuk, oster, erdi markatuta daude eta badago baten bat ez duena ezta marka bat ere. Beraz, GPSa erabili behar izan dugu, trakak In-ternetetik jaitzita.

Paraje zoragarriak

Eguraldia gehienetan lagun izan dugu, eguzkitsua sarri; oso egun ederrak igaro ditugu. Ostera Tornos igotzean hai-zea beldurtzekoa zen, eta Zalama men-dian elurra, izotza eta lainoa aurkitu ge-nuen. Hori ere dastatu behar zen.

Eta zer da ibilbidetik gehien gusta-tu zaiguna? Paraje batzuk zoragarriak dira: kosta ingurua, Karrantza inguratzeko etapak, Gorbeia... Hortik oinez, pri-sa barik ibilita, bizitza beste era batera ikusten da, eta garai hauetan gehiago. Era berean, azpimarratzekoa da ibilbi-

deak normalean joaten ez garen ingu-ruak zeharkatzen dituela. Bidean zenbat txoko, erreka, baserri, auzo, ermita... polit aurkitu ditugun, guretzat guztiz ezezagunak zirenak. Bakarrik horregatik merezi du ibilbideak.

Eta gutxien gustatu zaiguna? Baso asko zein egoera negargarrian dauden ikustea; zenbat eta kostalderago egin, pinua eta eukalipto nagusi direla, eta, horiek kudeatzeko, benetako astake-riak egiten direla: pistak edonon, lurak degradatuta, lokatzez beteak... Noizko gure basoa berreskuratzeko programa serioa eta logikoa?

Dena den, zalantza barik onena goiza mendiz mendi ibiltzen ematea izan da, lagunaren artean, berbalagunen artean. Beste inor animatzen bada, badaki, gu prest gaude jarraitzeko.

*Zalantza barik onena
goiza mendiz mendi
ibiltzen ematea izan
da, lagunaren artean,
berbalagunen artean*



Umeek ere eraikitzen dute herria

UMEEN KONTSEILUA

Francesco Tonucci pedagogo italiarrak “La città dei bambini” amestu zuen duela 30 urte eta harrezkero egitasmoa mundu osoko eta Euskal Herriko hainbat herritan ipini da abian. Egitasmoaren baitan Umeen Kontseilua dago eta horren helburua da haurren begirada herria eta herrigintzara ekartzea. Larrabetzuk, Lezamak eta Zamudiok bat egin dute proiektuarekin eta umeen iritziak, ikuspuntuak eta desirak kontuan hartzen hasi dira udal-gaiei buruz erabakitzeke orduan.

a: Umeen Kontseilua

Peru Calabaza Saban da Larrabetzuko, Lezamako eta Zamudioko umeen kontseiluen hezitzailea, dinamizatzailea eta kudeatzailea; heziketa Tonuccirengandik berarengandik jaso du. Azaldu digunez, umeen kontseiluaren bidez umeen begirada herrian pausatzen da: gusturen non egoten diren, herria nola erabiltzen duten, zer egitea gustatzen zaien, nolako herria nahiko luketen... Era berean, alkateak umeengana jotzen du udal-gaiei buruz dituzten iritziak eta iradokizunak eza-gutzeko eta erabakiak hartzeko orduan horiek kontuan hartzeko; hortaz, umeek herria eraikitzen laguntzen dute. “Jakintsuen kontseiluan pentsatuz gero, alkatea herriko zaharrenei galdezka irudikatuko dugu, baina umeekin kontrako muturrera joateko joera dugu: goitik ipintzen gara, zer egin behar duten esaten diegu, gure itxaropenak euren gogoaren gainetik jartzen ditugu... Egitasmoaren bitartez, eta alkatea herriaren ordezkaria dela, haurrak eta herria harremanetan ipintzen dira. Nolanahi ere, umeek horretarako gogoia izan behar dutela argi uzten diegu euren eta bai geure buruari”.

Larrabetzuko Umeen Kontseilua, LUK, 2017an ipini zen martxan; Lezamako,

LEUKO, 2019an; eta Zamudiokoa, 2020an. Kontseilua bederatzi urtetik 11 urtera bitarteko 12 ume inguruk osatzen dute, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetakoa. Parte-hartzaileak zozketaren bidez aukeratzen dira eta gehienez urte bati izaten dira kontseiluan. “Baina kontseilura ez da inor gogoz bestera etortzen: baten batek egitasmoan parte hartu nahi ez badu, zergatia azaltzen du, eta beste zozketa bat egiten da ordezkaria topatzeko”. Bilerak hilean behin egiten dute udal-instalazio batean, bi orduan eta eskola-ordutegian; zapatuetan, Lezamaren kasuan. Aipatutako hiru ikasturteetako umeek osatzen dute kontseilua, “zeren eta herrigintzara ahalik eta begirada inklusiboena” ekarri nahi baita, eta horretarako “ahalik eta ikuspegi ezberdinenak” behar direlako. “Adin horretan polita da; txikiagoak izanez gero, zailagoa izango litzateke gauzak azaltzea, beharbada”.

“Herrigintzara ahalik eta begirada inklusiboena ekarri nahi da; horretarako, ahalik eta ikuspegi ezberdinenak behar dira”

Calabazak argi utzi du kontseiluaren parte-hartzaileak ez direla ikaskideen ordezkariak. “Guk umeen buruan dauden txorien kantua entzun nahi dugu”. Txorien txioari entzuteko, beraz, ahalik eta umeen izaten uzten dieten. “Nagusiekin hitz egi-

ten dutenean, direna baino nagusiagoak direla erakusten saiatzen dira umeak; guk kontrara jotzen dugu eta giroa ezberdina da. Euren konfiantza lortu behar da eta, esaterako, jolasteko gogoia badute, denbora-tarte batean jolasten utzi behar zaie gero lanean jarraitzeko”.

Alkatea galdezka

Bilerak momentuko beharrezan araberak antolatzen dira. “Adibidez, alkateak aholkua edo iritzia eskatu ahal die udal-gai baten inguruan; Larrabetzuko kasu. Hango alkatea umeen kontseilura agertu da azaltzeko diru-kopuru bat dagoela Zubitalde auzoan parke bat egiteko eta umeen proposamenak jakin nahi dituela. Horrek bidea eman digu parkearen proiektua hainbat saiotan garatzeko: lekura joan gara, leku horretaz zer gustatzen zaien eta zer ez adierazi dute, zer nolako jokoetan ibiltzeko proposa den... Beste aldetik, izan daiteke alkateak galdera puntual bat egitea: Olentzero zela eta, Zamudioko alkateak kontseiluko umei galdetu zien pandemiak eragindako egoera kontuan hartuta ekintza nola antolatu litekeen. Galdera abiapuntutzat hartu, eta aurreko urteetako ekitaldiak nola egin ziren aztertutik guren, euren ustez zer den inportantea, aurtengo baldintzak eta umeen gogoak nola bateratu litezkeen... Era berean, ludoteka berria diseinatzen ari da Zamudion umeen kontseiluarekin batera”. Beste batzuetan alkateak proposamenik edo galderarik ez izatea gerta daiteke. “Orduan, umeekin zuzenean egiten dugu lan, euren gogoia, fantasiak... eza-gutzeko. Lezaman eta Zamudion, esate baterako umeen herriaren kontzeptua lantzen ga-

“Umeen begirada herrian pausatzen da: gusturen non egoten diren, nolako herria nahiko luketen...”



biltza momentu honetan: ume bakoitzak bere herri ideala asmatzen, margotzen eta kontatzen du, nolako arauak dituen, bertan nolako pertsonak bizi diren... Hortik sortzen diren proposamen zehatzak udalera eramango dira”.

Umeen kontseiluen arduradunaren ustez, inportanteena umeei aditzea da. “Umeei tratatu txar asko egiten zaie. Askotan entzuten dut gurasoek seme-alabei nola eta zein tonutan hitz egiten dieten eta pentsatzen dut zer geratuko litzatekeen bikotekideari horrela hitz eginez gero. Gu bezala, umeak herrietan bizi dira, etxean... Ez dut esan nahi botere osoa eman behar zaienik eta nahi dutena egin ahal dutenik, baizik eta onartu behar dugula pertsona osoak direla eta ez pertsona-proiektuak. Horri lotuta, inportantea da argitzea umeen kontseilura helduon interesagatik deitzen dela; hau da, helduok umeen iritzia jasotzeko interesa dugula. Hortaz, oso inportantea da alkateak benetan umeei entzun nahi izatea, eta ez argazkian polito ateratzea. Lezaman, kasurako, umeen kontseiluko parte-hartzaileek eurek erabaki eta diseinatu dute Kurtze auzoko haurren parkea eta harro-harro daude. Larrabetzun ere aurrera eraman dira konfinamenduan umeen kontseiluaren baitan garatutako mapa sentsoriala eta “Konfinamenduko altxorrak” erakusketa... Esango nuke hiru herrietan nahiko alkate enpatikoak daudela. Herri txikiak direnez, hurbilagokoak dira eta horrek asko errazten ditu gauzak”.

“Umeen kontseilura helduon interesagatik deitzen da; hau da, helduok umeen iritzia jasotzeko interesa dugu”

Beste aldetik, kontseiluan parte hartzeak berebiziko interesa pizten du umeengan, besteak beste, “sentitzen dutelako euren proposamenetan adituak direla, eta herriaren parte inplikatuak”. Halaber, udal-gaietan jarduteko aukera dute eta udal-kontuen berri izaten dute, egitasmoak taldeka egiten eta aurkezten ikasten dute eta udal-informazioa hainbat modutan aztertzen dute.



Jolasteko denbora

Konfinamenduaren eraginez, Lezama-ko Umeen Kontseilua erabat gelditu zen; Zamudion eta Larrabetzun, berriz, bideo-deiak egin ziren. “Ikusi genuen talde-enpatia beharrezkoa zela indarra eta motorra egoteko, pertsonen arteko harremana inportantea dela gauza guztietarako... Etxean sartuta bizi bizi gintezke, bai, besteekin bideodeien bidez komunikatzen... Baina zer bizimodu da hori?”. Bilerak berriro aurrez aurre egiten dituzte orain. “Eskolako burbuila berberak mantentzen ditugu, taldeka egiten dugu lan, eserita,

atsedenaldiak egiten ditugu lasai mokaduren bat har dezaten... Bileretan askatasun gutxiago dagoen arren, oso ondo moldatzen dira, oso erresilienteak dira... Etorkizunean ikusiko dugu horrek guztiak zer ondorio ekarriko dien”.

“Umeak oso erresilienteak dira... Etorkizunean ikusiko dugu horrek guztiak zein ondorio ekarriko dien”

Herriak eta hiriak batez ere helduon beharrianak betetzeko diseinatuta dau-
de, Calabazaren iritziz, eta egokia izango
litzateke herri osoa umeak modu segu-
ruan jolasteko lekua izatea. Hala ere, ohi-
tuta daude herriko guneen antolaerara.
"Behin, gehien gustatzen zaigun parkea
nolakoa zen hausnartu genuen eta guz-
tiek kolorez, txinboz... betetako parkea
irudikatu genuen; inork ez zuen, esatera-
ko, Doña Casilda moduko parke bat irudi-
katu. Eurek nahi dutena da egotea txirris-
tak, tirolinak...". Bestalde, herri guztietako
umeen kontseiluen partaideek eskatzen
dute jolasteko denbora gehiago izatea,
eskola-ordu gutxiago eta nagusiok hain-
beste arau ez ipintzea. "Mezu inportantea
dago hor. Gainera, nahiz eta kontrakoa di-
rudien, jolasak azterketek baino garrantzi
handiagoa du".

Hezitzailearen esanetan, umei euren
gauzei buruz ez ezik edozein gairi buruz
ere galdetu ahal zaie. "Alkate batzuk baka-
rrik haurrentzako parkea diseinatu behar
denean gogoratzen dira haiekin, baina
umeen begirada udalaren edozein espa-
rrutan hartu daiteke kontuan. Baita etxean



ere. Umeak pertsona osoak dira eta euren
ikuspuntua inportantea da gauza guztie-
tan". Horregatik, umeen kontseilua epe
luzeko egitasmoa izan behar da, haurrek
ere zer esan asko dutelako etorkizuneko
herriak eraikitzerakoan.

*"Umeak pertsona
osoak dira eta euren
ikuspuntua inportantea
da gauza guztietan"*

Txorierrin gure artean euskaraz berbaz

txori tokia



TXORIERRIN UDAL
EUSKALTEGIA



EUSKALTEGIETAKO IKASLEEN DEIALDIAK-2021

A1 eta A2 mailak egiaztatzeko, ebaluazio-
jarraituaren bidez.

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko, bi deialdi
(euskaltegian egon behar da matrikulatuta):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

ADI !! matrikulatzeko epea: 2021eko apirilaren 6tik 14ra

DEIALDI IREKIAK-2021

B1, B2, C1 eta C2 mailak egiaztatzeko matrikulazio
epeak (ez da euskaltegian matrikulatuta egon
behar):

-2021-04-6 / 2021-04-15 (biak barne).

-2021-09-9 / 2021-09-15 (biak barne).

HOBE 2021 (ORDENAGAILUEN BIDEZ)

-Lehen azterketaldian: C1 eta C2

-Bigarren azterketaldian: B1, B2, C1 eta C2
egiaztatu ahal izango dira.

Matrikulazio epeak:

-2021-03-9 / 2021-03-16 (biak barne).

-2021-09-1 / 2021-09-8 (biak barne).

(*)Plaza kopuru mugatua dago.

INFORMAZIO GEHIAGO: habe.euskadi.eus



Herriko Plaza, 3 - DERIO



Tel. 94 454 00 62 - Fax. 94 454 27 38



euskaltegia@txorierrin.eus

SONSOLES MARTINEZ**GORBEIA MERTZERIA (ZAMUDIO)**

Negozia 2005ean ipini zuen mar-txan. "Okerrena da herriak ixten direnean, alboko herrietako bezeroak ez direla au-sartzen etortzera. Eusko Jaurlaritzaren eta udal-bonuei esker apur bat areagotu ziren salmentak aurreko bi hilabeteetan, baina mugimendu gutxi dago berriro ere. Gai-nera, bidaiatzen ez bada, jendeak ez du arropa berririk erosten. Eskerrak bezero fidelak ditudala; gainera, konfinamenduaren ostean, jende gaztea ere etortzen da mertzeriara. Nabaritu dut orain jendeak kontu handiagoz erosten duela, izan ere, guztiok zalantzan bizi gara... Baina positi-boak izan behar dugu, eta aurrera egingo dugula pentsatu. Nire ustez, erakundeek bonu gehiago atera beharko lituzkete dendariei zein herritarrei laguntzeko, zer-gak murriztu... Eta hurbilagoak izan eta gure egoeraz galdetu".

**CAROLINA MANRIQUE****ARTILE ARTEAN ARTILE-DENDA (DERIO)**

Pandemia hasi baino sei hilabete lehenago zabaldu zuen negozioa. "Eten-gabe nabil zerbait asmatzen eta gauzak hilean-hilean antolatzen. Erabateko kon-finamenduan bezeroen etxera eramaten nituen eskariak eta maskarak egiten hasi nintzen. Apurka-apurka aurrera egiten nabil eta uste dut horrela jarraituz gero biziraungo dudala. Dendakoaz gainera, lan handia egin behar da horretarako: gi-zarte-sareak dinamizatzea, erakusleihoa, produktu berriak eta ikastaro erakarga-riak eskaintzea... Borrokalaria naiz eta nahiago ditut gauzak era positiboan ikusi: helburu txikiak ipini dizkiot neure buruari eta haiei pixkanaka-pixkanaka heltzeko asmoa dut".

LEIRE ABURTO

IZPILEN PARAFARMAZIA ETA BELAR-DENDA
(SONDIKA)

Negozia 2012an ipini zuen martxan. Kontatu digunez, COVID-19ak batez ere erosteko modua aldatzea ekarri du. "Orain, dendara etorri baino lehen, bezeroek telefonoz deitzen dute jakiteko produktu hau edo bestea dugun, eta gero hurbiltzen dira hura erostera. Pandemiaren hasieran, saltoki guztietan edo gehienetan moduan, alkohola falta zitzaigun, baina orokorrean ez dugu hornikuntza-arazorik izan; hala ere, produktu batzuk eskatu, eta ohi baino apur bat beranduago jaso ditugu: 24 orduan jaso beharrean, 48 orduan, adibidez". Bestalde, udalerrien itxiera perimetrala dela eta, produktuak etxera eramateko zerbitzua eskaintzen diete Txorierriko gainerako herrietako bezeroei. "Azkenean, gehiago mugitu behar da, ia berdina irabazteko". Bere esanetan, lehen mukiak kentzeko eta immunitatea indartzeko jarabeak saltzen zituen asko; orain, gogo-aldarteak igotzeko produktuak.



AGURTZANE LOPATEGI ETA ITZIAR TAIBO

TXORIERRI ETXE-AGENTZIA (SONDIKA)

Etxe-agentzia 1998an zabaldu zuten. Pandemiak eragin handia du jendearen gogo-aldartearen, eta haiek bezeroengan ere nabaritu dute hori. "Batzuek ez dute etxebizitza salgai jartzen, ez baitute jendea euren etxetik ibiltzea nahi. Beste batzuek deitzen dute, baina itxiera perimetrala dela, eremu gorria dela, ez dira animatzen hona etortzera, joan-etorrietarako egiaztagiria egiten dugun arren. Nolanahi ere, salmentak izan ditugu, etxebizitzaz aldatu behar duen jendea dagoelako. Horren harira, aipatu beharra dago gaur egun ere mota guztietako etxebizitzak saltzen direla: terraza edo lorategia dutenak zein ez dutenak. Bestalde, nabaritu dugu prezioak egokitu direla: azken batean, pandemiak lan-arloan ere eragina du eta orain lehen baino zuhurtzia handiagoz jokutzen da etxebizitza erosteko orduan". Lopategik eta Taibok azpimarratu dute bizi-kalitate handia dagoela Txorierri. "Eta hori ez da beste leku batzuetan topatzen".



Katuak gure artean

Ikerketen arabera, katuak duela 5.300 urte baino gehiago bihurtu ziren etxeko animalia. Nekazaritzak sustatu zuen gizakiaren eta katuaren arteko harremana, ortuetan eta garautegien inguruan katuak karraskariak eta beste harrapakin batzuk ehizatzen zituzten eta. Abandonuen eta praxi okerren ondorioz, aspalditik katuen koloniak daude gure herrietan. Elkarrekin eta zenbait herritarrek ezinbestekotzat jotzen dute udalerrietan CER protokoloak martxan ipintzea, animaliek bizi-kalitatea izateko eta gainpopulazioari aurre egiteko.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Teresa Alonso del Vado Aloha Ohana animaliak babesteko elkartearen presidentea da eta katuen zaintzailea da Derion. Lerro hauek idaztean, Estatuko beste 15 elkarterekin batera, testu bat izenpetu dute udalerrietan CER protokoloa ezartzeko eskatzeko. Testua udal guztietara bidaltzeko asmoa dute.

Alonsoren esanetan, herri guztietan daude katuen koloniak eta Txoriherri ez da salbuespena. "Zaila da zenbaki zehatza esatea, baina kalean bizi diren ehunka katuri buruz ari gara". Azaldu digunez, katuen kolonien arazoa aspaldikoa da, "animaliak etxekotzen hasi ginenetik", eta arduragabetasunaren emaitza da. "Katuen koloniak osatzen dira animaliak kalean abandonatzen direlako eta kumaldi asko izaten dituztelako". Katama batek hiru hilean behin izan ditzake kumeak eta erditze batean bost kume inguru jaio daitzke. Ondorioa da gero eta katu gehiago daudela eta herrietan eta auzoetan arazoak sortzen direla: katuak oso lurraldekoiak dira eta euren eremua txizarekin markatzen dute; janari bila ibiltzen dira edonon; ibilgailuetan babesten dira horetatik; euren arteko borrokak izaten dira;

"Katuen koloniak osatzen dira animaliak kalean abandonatzen direlako eta kumaldi asko izaten dituztelako"

janaririk gabe eta babes faltan, batzuk gairorik daude...

Salbuespenak salbu, bere iritziz, udalherri askotan ez dira errespetatzen animaliak babesten diren legeak, kaleko katuak halabehararren menpe uzten direlako. Egoerari aurre egiteko, udalerrietan CER protokoloa martxan ipintzeko aldarrikapena egiten du. "Protokolo hori modu etikoan egin behar da, erantzukizunez eta era integralean, eta hurrengo honetan datza: animalien errolda egin ondoren, katuak harrapatu behar dira saneatzeko eta antzutzeko; ondoren, kaletik kendu egin behar dira kumeak, katu lagunkoiak eta katu zaharrak, eta adopzioan ematen saiatu. Bestalde, katu feralak, zakarragoak direnak, euren koloniar edo gunera itzuli behar dira, baina ez edozein modutan: janaria eta euren burua babesteko lekua dutela bermatu behar da"

"CERa modu etikoan egin behar da, erantzukizunez eta era integralean"

Animalien eskubideak errespetatzeaz gainera, Alonsok adierazi du CER protokoloa ezartzeak onura asko ekarriko dituela. "Katuak antzutzuz gero, euren gunea txizarekin markatzeari utziko diote, ez dira borrokatan ibiliko, ez dira ibiliko ugaltzen eta katakumeak aurrera ateratzeko lanean eta, hortaz, ehiztariagoak izango dira. Horrek onura ekarriko du, lagunduko baitigute



arratoi-, intsektu- eta narrasti-izurriteak modu naturalean kontrolatzen". Bere aburuz, egokia izango litzateke katuen koloniak ondo zedarritzea, horietan askak ipintzea eta koloniaren gaineko informazioa ematea, herritarrek jakiteko zeintzuk diren hango katuen ezaugarriak eta eginkizuna.

"Gainpopulazioa kontrolatzeaz gainera, katuak antzutzeko ehiztariago bihurtuko ditu eta lagunduko dute izurriteak kontrolatzen"

Katuen zaintzailearen esanetan, Derioko Udalera jo dute katuen arazoari konponbidea topatzen saiatzeko, baina erantzuna izan da Mankomunitatearen bidez kudeatu behar dela. "Katuen aldeko elkarteak batu gara udalei esateko txarto egiten ari direla; hala ere, laguntza ere eskaintzen diegu, zeren eta elkarrekin eta zaintzaileok ondo baino hobeto ezagutzen baitugu zeintzuk diren katuen arazoak eta horiek konpontzeko bideak".

Erakundeen inplikazioa

Sondikan lagun-talde bat eratu da, hango katuei oinarritzko zaintzak emateko. Kontatu digutenez, kalean abandonatzen den etxeko katuaren bizi-itxaropena hiru hilekoa da, eta katu feral batena, hiru urtekoa; etxeko katu batek, berriz, 15 urte edo gehiago ere bete ditzake. "Kaleko ka-

tuak hiltzen dira batez ere ibilgailuek harapatuta edo pozoituta. Azken hori delitua den arren, ez da ikertzen; zaintzaileok, ordea, errieta eta isuna jasotzeko arriskua dugu, animaliak elikatzeagatik eta zaintzeagatik”.

Zaintzaileek euren dirua eta baliabi-deak erabiltzen dituzte, ahal den neurrian, euren kabuz CER protokoloa ezartzeko. “Adibidez, konfinamenduan 16 katu kendu genituen herriko kale batetik, eta hile eta erdian bederatzi katu antzutu ditugu. Jateko egokiak ez ezik medikazioa ere ematen diegu. Batzuetan Katukin moduko elkar-teen laguntza dugu, baina haiek ere ezin dira denera heldu”. Esan digute Sondikako Udalera jo dutela eta erakundea katuak antzutzeko prest azaldu dela; alabaina, ez die zehaztu noiz. “Nahiz eta urratsa izan, ez da nahikoa, uste dugulako benetako konponbidea CER protokolo osoa ezartzea dela: ez du balio katu bat antzutu eta gero kalean uzteak, autoen artean ibili dadin edota zakarrontzietan jatekoa bilatu dezan”.

Lagun-taldeak inplikazio handiagoa eskatu dio udalari. “Kontzientziazio-kanpainak egitea ere onuragarria izango litza-

teke, eta zaintzaileoi gure lana egin ahal izateko agiria ematea. Izan ere, disgustua hartzen dugu askotan, pertsona batzuek ez dutelako ulertzen zer egiten gabiltzan. Pentsatzen dugu ezinbestekoa dela Sondikak katuak kontrolatuta eta osasuntsu izatea”.

“Konfinamenduan 16 katu kendu genituen herriko kale batetik, eta hilabete eta erdian bederatzi katu antzutu ditugu”



TALDEA **GURENA**
ASISTENTZI ETA EGOITZA-ZERBITZUAK

ZURE NEURRIRA



**BABESPEKO
APARTAMENTUAK**
600 euro
asistentzia sanitarioa (24 ordu)

**EGONALDIAK
EGOITZEAN**
egunean
gauean
asteburuetan

Unbe txiki bidea 9
LOIU 48180
(Urdaneta ikastetxearen aurrean)

944 530 049
www.gurena.com

“Egitura eta funtzioak berrikusi beharko lituzkete euskara elkarteek”

TXERRA RODRIGUEZ | soziolinguista



Deriotarrak 30 urte *mihigintzan* liburua argitaratu berri du UEUrekin, eta euskara elkarteek 1987tik 2017ra bitartean euskararen biziberritzeari egindako ekarpena aztertu du bertan. Gainera, azterlana doktoretza-tesian aurkeztu zuen joan den udan.

t: Itxaso Marina Ondarroa

Zergatik euskara elkarteak ikertu? Zergatik hiru hamarkada horietan?

Doktoretza-tesia ekainean aurkeztu nuen eta argi nuen gaia euskara elkarteak izan behar zela, hainbat urte daramatzadako horretan militatzen. Halaber, gaiari buruzko ikerketa gutxi zegoela iruditu zitzaidan eta ekarpentxoak egin nahi nuen. Beste aldetik, hasierako urtea, 1987a, mugarririk da, izan ere, Txepetxek *Un futuro para nuestro pasado* liburua kaleratu zuen urte hartan eta hasierako euskara elkarteak lan horretan oinarrituta hasi ziren. 2017ko datak, bestalde, ez du horrenbesteko mugarri-izaerarik, baina hurrengo urtean Euskaldia egin zen lehen aldiz eta, nire ustez, inflexio-puntua ekarri zuen; gainera, ikerketa batzuen arabera, belar-naldiak berez 30 urteko epealdikoak dira.

Lau urtean egindako ikerketa da, nolakoa izan da landa-lana?

Ehun bat euskara elkarte hartu ditut

kontuan –batzuk desagertuta daude– eta, zelanbaiteko aukeraketa egiten, 26 elkartetako jendearengana jo nuen hainbat datu gurutzatuta: generoa, elkarteetan emandako denbora, rola... Elkarrizketa horietatik atera nituen kontraesanak kontrastatzeko, galdetegia bidali nien 25 pertsonari eta 16k erantzun zuten. Hori lehen zatia izan zen; bigarrena, irakurtzea: euskara elkartei buruz idatzitako guztia irakurri dut, edo ia guztia.

Zeintzuk dira euskara elkarteek euskararen biziberritzeari egindako ekarpenetako batzuk?

Ekarpen nagusi bi egin dituzte: batetik, lehendabizikoak izan ziren esaten erabilera zentroan jarri behar zela, eta diskurtso hori gaur egun nagusi da euskalgintzan eta administrazioan; eta bestetik, horretarako mekanismoak eraiki dituzte: komunikabideak, mintzapraktika-jarduerak, aisialdiko egitasmoak... Hala ere, nire iritziz, hirugarren ondorio bat ere badago: lehenengo 10 urteetan oso amets han-

diak zeuden eta ez dira bete; horrek nolabaiteko frustrazio-sentimendua sortu du euskara elkarteetan ibilitako jendearen artean.

“Euskaldunen komunitatea trinkotzea helburu abstraktu moduan geratu da eta ekintzei eman zaie garrantzi handiagoa”

Adibidez?

Amets nagusia zen euskaldunen komunitatea trinkotzea: herrietako euskaldunak proiektu komun batean batu eta hortik joan euskaldunen komunitate berri bat eraikiz. Hori modu batera lortu da, baina ez erabat, euskara elkarteek ez baitute sekula definitu trinkotze hori zer den, ezta

euskaldunen komunitatea zer den eta zeintzuek osatzen duten ere. Nire ustez, hori helburu abstraktu moduan geratu da, eta, batez ere ekintzaileak izan direnez, euskara elkarteek ekintzei eman diete garrantzi handiagoa.

Euskara elkarteek tokiko hizkuntza-politikoan gehiago eragin beharko lukete, zure aburuz.

Eragiten dute, baina horrek ez du esan nahi gehiago eragin ezin daitekeenik. Dena dela, nik gehiago esaten dut politikan eragin behar dutela; politika zentzu zabalean ulertuta. Tokiko hizkuntza-politikari dagokionez, ez dut esan nahi konfrontazio-dinamika batean sartu behar direnik; nire ustetan, orain arteko estiloan jarraitu behar dute eragiten: sukalde-lanari garrantzi handiagoa ematen, akordioak bilatzeari... Baina euskara elkarteak ez dira bakarrik mintzapraktika edo kultura-ekitaldiak egiten dituzten elkarteak: nolabaiteko estutze bat egin behar dute. Adibidez, herrian euskararen gaineko ordenantza badago, zergatik ez egin urtearen amaieran horren inplementazioaren jarraipena?

“Euskara elkarteak ez dira bakarrik mintzapraktika edo kultura-ekitaldiak egiten dituzten elkarteak: nolabaiteko estutze bat egin behar dute”

Tximintx komunitatearen kidea zara aspaldidanik, zein ekarpen egin dio hark euskararen biziberritzeari Derion?

Tximintxen sorreran eta garapenean aniztasuna lortu zen: sentsibiltate ezberdinakoa jendea batu zen, ibilbide ezberdinakoa eta hainbat adinetakoa. Hori pizgarria izan zen herrirako. Era berean, egiteko estilo berria ekarri zuen: erabilerak sustatzeko ekimenak –berbalagun, Kukue antzerki eskola, Derion Ahora...– egin dira, ludotekarekin eta beste kultur elkarte batzuekin ere bestelako lanaketa batzuk, urteetan oso sukalde-lan handia udalarekin... Egia da hasierako ametsak lortutakoen nahiko azpitik zeudela; guk ez

“Mintzatzeko, harremanak izateko... moduak aldatu dira eta horretara egokitzeko ahalegina egin behar da”

genuen uste Derion hainbeste eragingo genuenik. Nolanahi ere, oraindik ere oso urrun gaude aipatutako trinkotze horretatik eta euskaraz egiteko aukera guztiak aprobetxatzetik.

Tximintx euskara elkarteak komunitate bihurtu zen 2019an. Hori da bidea?

Ez dakit, izan ere, paperean idatzitako praktikara eman behar izan genuen 2020ko martxoan, eta komunitatea martxan jarri, baina pikutara joan zitzaigun. Hala ere, badakit bidea esperimentazioa dela. Euskara elkarteak sortu zireneko errealitatea eta gaur egungoa ezberdinak dira eta mintzatzeko, harremanak izateko... moduak ere aldatu dira; hortaz, euskara elkarteek ere horretara egokitzeko ahalegina egin behar dute.

Zein egoeratan daude euskara elkarteak orokorrean?

Alde batetik, eta salbuespenak salbuespen, ahul samar daude; bestetik, Euskaraldiaren bidez lortu dute sekula lortu ez dutena: Euskal Herri osoko jendea aktibatzea, 200.000 pertsona hizkuntza-ohiturak aldatzeko ekintza horretan dantzan jartzea... Kontraesankorra da.

Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?

Beste batzuen artean, Euskaraldiak erakutsi digu halako tankerako gauzek –norbanakoaren inplikazioa eskatzen dutenak, baina kolektiboan egiten direnak– arrakasta dutela, eta, aurrera begira, momentua da pentsatzeko zein “beste Euskaraldia” edo ekintza ipini ahal den martxan. Beste erronka batek zerikusia du egiturarekin eta funtzionamenduari, biek ikaragarritzko harremana baitute. Pentsatzen dut euskara elkarteek egitura malguago baten bila joan beharko luketela, 80ko hamarkadako eredua –zuzendaritza, bazkideak, liberatuak...– agortze bidean dagoelako. Era berean, funtzioak berrikusi beharko lituzkete. Hau da, euren funtzioa zein den: kultur ekitaldiak antolatzea ala kultur zaletasuna bultzatzea? Zein da herriko komunikabidearen, AIKOR!



kasu, etorkizuna? Jarraitzea etengabe hila betekaria izaten ala bestelako salto bat egitea? Errealitateak gure lekuan ipiniko gaitu gero, baina, behintzat, pentsatzea. Horregatik uztartu behar dira biak; hala ere, aldi berean, egiturak askotan ez digu baimentzen funtzioei buruzko gogoeta ausartak egitea.

Euskaltzaleen topagunearen eta euskara elkartearen arteko harremana birpentsatu behar dela diozu, zergatik?

Topagunea oso modu utopikoan pentsatu zen 1997an. Indarra elkarteetan zegoen eta eurek kontrolatutako nazional bat sortu zen, danek artean gauza batzuk elkarrekin egiteko. 2011n buelta eman zitzaion horri eta Topaguneari aitzindaritza aitortu zioten elkarteek; hamar urteren ondoren, egoera aztertu beharra dago. Arrazoiak edozein dela ere, elkarte batzuk urrun egon dira Topagunetik eta azken horrek gurekiko izan duen harremana ere aldatu da; hausnartu behar dugula uste dut. Zer nahi dugu? Euskaraldia moduko ekintzak egiteko gauza den Topagunea? Oso gogoeta soziolinguistiko indartsuak egiteko gauza dena? Eta, aldi berean, euskara elkarte ahul asko? Edo, egiten dituen lan horiez gainera, Topaguneari herrietako dinamika indartzeko eta sustatzeko lana egin behar du? Lan batzuk maila nazionalera eramatea oso ondo dago, baina nire kezka da ez ote dabilen oinarria ahazten. Zergatik ez aprobetxatu Topagunearen indarra, herrietan dinamika batzuk berpizteko?

“Zergatik ez aprobetxatu Topagunearen indarra, herrietan dinamika batzuk berpizteko?”

Zamudio mugikorraren bidez ikusita

Zamudioko Udalak "Argazkilaritza mugikorra-
rekin" txapelketea antolatu eban. Txapelketak
herriko paisaiak topatzera eta txokoak ezagu-
tarazotera gonbidatu zituan herritarrak, eta
antolatzaileek 300 irudi baino gehiago jaso
ebezana. Irabazleak honeek izan dira: Roberto
Gonzalez Gallego (argazkirik onena), Ainhoa
Garcia Gonzalez (originaltasuna) eta Adolfo Eli-
zalde Hernandez (txoko ezezaguna). Irabazleek
Zamudioko ostalaritzan gastatzeko 20 euroko
diru-txartela jaso dabe saritzat; eta gainerako
parte-hartzaileek, 10 euroko diru-txartela.



Ainhoa Garcia Gonzalez



Roberto Gonzalez Gallego



Adolfo Elizalde Hernandez



Raul Gemar Alonso



Jesus Pedrero



Alaitz Ziordia Urria



Alex Albarran Del Valle



Fernando Salvarrey Lahera



Lourdes Leal Díaz



Juan Manuel Callava Villaño



Jesus Pedrero



Unai Legarreta



Mar Fernandez Zapatero



Roberto Gonzalez Gallego

Emakumeak ikusgai

Emaus Gizarte Fundazioaren arreta osoko programa da PAI Bitartean. Historian eragin handia izan duten emakumeetako batzuk ikusgai ipini nahi izan ditugu martxoan, eta, horretarako, eguneko zerbitzuaren erabiltzaileek zenbait ekimen egin dituzte.

t: Pilar Garcia, PAI Bitarteaneko zuzendaria

Emakume handiak nabarmendu ditugu, emakume ausartak, indartsuak, adoretuak eta ilusioz beteak; eta Derion kartelak ipini ditugu euren irudia bistaratzeko eta euren historia kontatzeko. Hauek dira emakumeetako batzuk: Ada Lovelace, historiako lehen ordenagailu-programatzailea; Malala Yousafzai, emakumeen eta neskatoen hezkuntzaren aldeko aktibista; Marie Curie, bi espezialitatetako (Fisika eta Kimika) Nobel saria jaso zuen lehen pertsona; Hedy Lamarr, aktorea eta espektro hedatuaren transmisio-teknika asmatu zuena, zeinetan egungo haririk gabeko teknologia guztiak (wifia, bluetooth, GPS...) oinarritzen diren; Clara Campoamor, emakumeen errepublika-batasunaren sortzailea eta 1931n, Espainian, emakumeen sufragioaren bultzatzaileetako bat; eta Gertrude B. Elion, leuzemiarako, malariarako eta gertu-infekzioetarako tratamenduak aurkitu zituen.

Inguru hurbilean ere emakume adierazgarriak ditugu, hala nola Miren Basaras Mikrobiologian doktorea, Bego Vicario zinemagilea eta irakaslea, Toti Martinez de Lezea idazlea, Iraia Iturregi Athleticeko emakumeen taldearen entrenatzailea, Irene Artetxe herri-probetan dabilena eta Sara Gandara, Irene Diaz Abellan eta Jone Fernandez kazetariak. Baita elkarte feministen emakumeak ere: Moreak (Lezama), Zapata Gorriak (Zamudio), Iretargi Betea (Loiu), Garrasia (Sondika), Koxak (Derio), Zutuniki (Larrabetzu) eta Txorierriko Neska



Gazteak. Era berean, ez ditugu gainerako emakumeak ahaztu nahi: amak, amamak eta hainbat eratako eta hainbat lanbide-tan dabilen emakumeak, gugatik beren onena ematen dutenak. Esker ona adierazi nahi diegu, eta indar-, adore-, ausardia- eta ilusio-mezua helarazi.

Azkenik, ahots sendoz eta seguruz, ikusiezina diren emakumeak aipatu nahi ditugu, isilean sufritzen dutenak, etxerik ez dutenak, laguntzarik ez dutenak eta aurrera egiteko bakar-bakarrik borrokatzen ari direnak. Bizitegi-bazterketa larriari buruzko azterlan baten arabera (ETHOS tipologia), 2014an etxerik ez zuten 457 emakume inguru zeuden Euskal Autonomia Erkidegoan, 33.707 emakume etxebizitza arriskutsuetan bizi ziren, eta 80.000 emakume baino gehiago, etxebizitza ez egokietan.

Ikusten ez dena ez da existitzen. Horregatik, aurreko lerroetan esandako errealitatea ikusgai ipini nahi dugu; Emaus Gizarte Fundazioko langileok egunero ikusten dugu.

Eskumuturreko solidarioak

Eguneko zerbitzuaren erabiltzaileek eskumuturreko solidarioak egin dituzte, eta batutako dirua ACAMBI Bizkaiko Gine-



kologiko eta Bular Minbiziaren Elkarteari eman diote. Guztira 402,32 euro batu dira. Dohaina eman zuten derioztarrez eta txorierriarrez gainera, eskerrak eman nahi dizkiegu Derioko Udalari, Adarve tabernari, kiroldegia, Arteaga estankoiari eta Baserri Antzokiari, eskumuturrak salgai ipintzeko gunea utzi zigutelako.

Bestalde, martxoaren 5ean, Ines Sanchez eta Belen Gonzalez, ACAMBIko presidenteordea eta boluntarioa hurrenez hurren, izan genituen irratiari. Elkarrizketa egin genien eta oso modu hurbilean kontatu ziguten nortzuk diren, zein motatako ekintzak egiten zituzten eta nola lagundu ahal genien. Informazio guztia www.acambi.es webgunean dago eskuragarri. Eskerrik asko, Ines eta Belen! Oso tarte atsegina pasatu genuen zuekin.

"Ikusiezina diren emakumeak ere aipatu nahi ditugu, isilean sufritzen dutenak eta laguntzarik ez daukatenak"

Martxoaren zortziaz

Zapore gazi-gozoa utzi digu martxoaren 8 honek, egun seinalatu bezain nahasia bihurtu baita data hau. 1910ean Emakume Sozialisten Bigarren Konferentzia Internazionalak Emakume Langileon Nazioarteko Eguna antolatzeko hautua egin zuen, sozialismoaren helburua argi izanik, erabaki taktiko gisara.

t: Arrate Gaztelu Agirre

Nahasia esaten dut, batetik, ospakizunaren eta borrokaren arteko kontraesantetan murgiltzen garelako eta, bestetik, aldarrikapenen artean hainbatetan aurkitzen ditugulako interes kontrajarriei erantzuten dieten ideiak.

Hedabideetan sarritan entzun dugu emakumeen presentziak nabarmen egin duela gora enpresetako eta estatu aparatuetako goi-karguetan. Aipagarria da, esaterako, "Espainiako Estatuko historiako gobernu aurrerakoi eta feministena" enpresa munduan abiaraziko den trantsizio feministaren aldeko adierazpenak egiten aritzea, noiz eta emakume proletarizatuen bizi-baldintzak gero eta penagarriagoak diren honetan.

Ezin daiteke ukatu Estatuaren agente diren instituzioek eta alderdi politiko instituzionalek feminismoaren izenean egiten duten erradikaltasun saiakerak ardura sortu duela, errealtatean ez baitute emakume langilearen zapalkuntza gainditzeko konpromisorik. Fenomeno horren ondorio dira, adibidez, gobernuaren par-

tetik martxan ipintzen diren lege erreformak eta bestelako proposamenak, Espainiako Estatuko gobernuak duen emakume ministro kopurua edo Frantziako gobernuak parekidetasuna erdigunean izango duen legealdia gauzatzeko duela hitz eman izana. EAE eta Nafarroako gobernuetan ere berdintasunaren aldeko itxurakeria behin eta berriz jasan behar izaten dugu, zaintza erdigunean jartzeko aldarrikapenetan edo emakumeen lanak ikusarazteko eginiko saiakeretan, besteak beste.

Eta nola saihestu geure buruei galdeztzea, promesa hauen guztien ondoren, zer ote den emakume langileon bizitzetan aldatu dena. Askok eta askok miseria lanetara bideratuta eta etxeko zereginetan giltzapetuta jarraitzen dute, baita familiarekiko eta instituzioekiko erabateko dependentzia ekonomikora kondenatuta ere. Eta horri krisiaren ondorio den bizi-baldintzen kaskartzea ere gehitu behar diogu. Hori gutxi balitz, gainera, neurri juridikoak indarkeria matxistaren ondorioz



a: Itaia Emakumeon Antolakunde Sozialista

erasotua izan den emakumea isilarazteko daude diseinatuta, eta garesti ordaintzen ditugu horren ondorioak.

Egoera horren aurrean, gure interesak eta beharrak lehen lerroan izango dituen antolakuntza propio bat garatzeko beharra dago. Batetik, interes ekonomikoak bermatzeko sektore soil batzuen onurak bultzatzen dituzten proposamenak alboratuz eta horiek gure esplotazioan eta zapalkuntzan duten ardura seinalatuz. Eta, bestetik, emakume langileon arteko elkartasuna eraikitzen jarraituz, geure bizi- eta lan-baldintzak hobetzeko eta gure etorkizuna egungo forma hauetatik at diseinatzeko.



Pandemia hitza euskara da, ez da erdara.

“Orain berriki agertu zaizkigu alde honetan ere, bertsolari gazteak. Ba ote dakite zer atsegina egin didaten?” (Xalbador: Odolaren mintzoa).

t: Juan Luis Goikoetxea

Pandemia hitza grekotik dator, eta euskara da. Erdaldunarentzat ere bai? Seguru asko ez. Hura hizkuntza hegemonikoko alaba edo semea da; zu hizkuntza txikiagoko hitzuna.

Garrantzi handia du euskarari edo erdarari buruz duzun iritzia jakiteak. Hara! Har dezagun zuhaitza adibidetzat: enborra grekoa da eta adarrak dira euskara, gaztelania, frantsesa, ingelesa, eta abar. Euskarak pandemia hitza grekotik hartzen du, enborretik, ez adarretatik; ez frantsetik edo espainieratik. Beraz, pandemia euskara da, baita espainiera, eta frantsesa, eta ingelesa ere.

Gaztelaraz mintzo denak, berriz zera esango dizu: “Cogéis muchas palabras del castellano, palabras como pandemia, matemática, y así”. Iritzi hori kaltegarria da euskararako. Euskarari buruzko iritzia landu egin behar da, erdaldunek dezaten euskara maitatu, eta egunero praktikat. Horregatik, euskaldun berria izateko, ideiak behar dira argi, eta bidea garbi.



Pentsatu behar dugu Santiagoraino helzen diren erromes guztiak ez direla galegoz mintzatzen; euskara ikastera iristen diren guztiak ere ez euskaraz, askok ikasia ahaztu egiten dute-eta.

Sarri aurkitu izan naiz guraso gaztez inguratuta isilik, aktiboki entzuten. Jakin arren, erdaraz dabilta. Zein ote da gurasoon iritzia eskolan euskara ikasteaz, edo

euskarari berari buruz? Askotan entzun diet iritzi hau ere: “Espainiera dakigunak txarrak gara hizkuntzak ikasten”. Ez dira ohartzen hizkuntza praktika dela; ez dela kontua ariketa asko eta gramatika ikastea euskaldun berri izatera heltzeko.

Noiz esan ahalko ote dugu Xalbadorren antzera: Zein atsegin handia bertsolari gazteak -euskaldun berri gazteak- entzutea!

Iz
Ile-apaindegia
estetika

Txanibangorri, 2
ZAMUDIO
946 036 943

AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburuntza:
8:00-13:30

Uribe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

HARATEGIA
ALBERTO

Arbolantxa, 4
T: 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

izpilen
PARAFARMACIA • BELAR DENDA

Sabino Arana, 3 Iorja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
946 558 000 - 689 998 843 - izpilen@gmail.com

ama
taberna

Leizaola plaza, 7 - behea (ZAMUDIO)
94 655 93 69

Enaitz
TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama


Arnastu garbitasuna

Etxebizitza garbi egoteak energia, bibrazio onak eta alaitasuna ekartzen dizkigu. Horregatik, zenbait hiletan gure burua neguko hotzetik babestu ondoren, udaberria oso urtaro egokia da leihoak zabaltzeko eta hormek, sabaiek eta altzariak arnasa hartu dezaten. Ehun-gaiak garbi egoteak ere freskura-sentsazioa eta zoriontasuna areagotuko ditu, eta, aldi berean, lore-hautsa eta akaroak ezabatzen lagunduko digu.

Udaberriko garbiketa eraginkorra egiteko, ezinbestekoak da, besteak beste, etxeko txoko guztietan hautsa kentzea; leihoak, ateak, azulejuak, iturriak... garbitzea; eta armairuak ordenatzea. Era berean, arreta berezia eskaini beharko diegu gortinei, ohe-estalkiei, burkoen betegarri, burusiei, sofa-azalei eta alfonbrei.

Gehienetan arazoak ditugu ehun-gaiak etxean bertan garbitzeko eta profesionalengana jotzeko beharra izaten dugu. **SondiGarbi** garbitokiak konponbideak eskaintzen dizkigu udaberriko garbiketa ez ezik urteko edozein garbiketa ere eroso egiteko. "Familiako enpresa txikia gara eta herritarrekin batera hazten jarraitu nahi dugu. Badakigu ez direla garai onak, baina ahalik eta zerbitzurik onena eman nahi diegu sondikoztarrei zein gainerako txorieritarrei".

SondiGarbi garbitokia urteko 365 egunetan dago zabalik, 08:00etatik 22:00etara. Garbigailu bi dituzte: bata 11 kilo arropa har ditzake, eta besteak, 14 kilo. Gainera, automatikoki botatzen dituzte xaboia, leungarria eta oxigeno



aktiboa. Bestalde, 18 kiloko edukiera duten lehorgailu bi dituzte. "Gure helburua da handituz joatea. Horri lotuta, makina gehiago ipintzeko asmoa dugu, zerbitzua arinago emateko eta bezeroek gehiegi itxaron behar ez izateko". Aurretik eskatuz gero, zerbitzu hauek ere eskaintzen dizkigute: tindategia (lehorreko garbiketara), lisatzea eta alfonbrak eta arropa jaso eta eramateko zerbitzua. Eta zer esanik ez, instalazioen garbiketan arreta handia ipintzen dute eta higiena muturrera eramaten dute.

SondiGarbi garbitokiak eskaintzen dituen zerbitzuak www.sondigarbi.net webgunean kontsultatu ditza-kegu, eta han izan daitezkeen aldaketen

berri ere emango digute. Udaberriko garbiketa egitea errazago ipintzen digu **SondiGarbi**, etxetik oso hurbil eta kalitate eta konfiantza osoz. Udaberria arnasten hasi gara Txorierrin, eta etxean.

Garbitegi-zerbitzuaz gainera, hauek ere eskaintzen dizkigute: tindategia, lisatzea eta alfonbrak jaso eta eramatea



Etxeko sukaldaritza

Tallarinak barazkiakaz eta
atunagaz edo oilaskoagaz

t: Maite Lekerika / a: noodles.com

Osagaiak (lau laguntzat):

- 300 g tallarin (egosiak)
- Kua bat
- Piper berde bat
- Piper gorri-erdia
- Kipula bat
- 100 g txanpiñoi
- 300 g oilasko-bularki edo 200 gramoko atun-lata bat
- Oliba-orioa eta gatza

Prestetako errea:

Barazkiak zerrenda meheetan ebagiko doguz. Kipulea erregosiko dogu, eta ondoren gainerako barazkiak gehitu. Minutu pare baten prijiduko doguz. Ostein, oilaskoa edo atuna botako dogu eta barazkiakaz nahastuko dogu. Beharrezkoa bada, gatza botako dogu. Tallarinak gehituko doguz. Gustaten bajaku, gaintik gaztai birrindua bota geinke platera mahaira atera baino lehen.

Txokolatezko
arrautzak habian

a: gastronomiaycia.republica.com

Osagaiak (16 arrautza):

- 400 g txokolate (urtzekoa)
- 100 g arroz harrotua, edo zerealak edo fruitu lehorrak...
- Koko birrindua
- 16 txokolatezko arrautza txiki

Prestetako errea:

Txokolatea urtu ondoren, arroz harrotua-gaz edo zerealakaz nahasiko dogu. Nahasia magdalenak egiteko moldeetan botako dogu eta habi-itxurea emongo deusegu. Erdian hutsunea itxiko dogu bertan arrautzak ipinteko. Koko birrindua botako dogu gaintetik. Txokolatea hoztu eta gogortzen danean, atera egingo doguz moldeetatik. Ondoren, arrautzak ipiniko doguz.



**SARRIKOLA
OGITEGIA**

Euskal pastela
Basemko ogia
Bizkotxoak
Hainbat tarta

Sarrikola, z/g Larrabetzu
Tel.: 94 455 83 37
619 78 58 84

**RADIO TAXI
FEMADE**

Zure taxi,
Teoriarikoa

Zamudio - Derio - Sondika - Lezama - Larrabetzu - Loiu

24h **94 480 09 09**

ERRESERBAK:
www.taxisaeropuertobilbao.com

DESKARGATU APP-A

TAXI FEMADE

**Carrefour
express**

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbatean
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO


ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Umeen txokoa: zazpi desberdintasunak

Ezetz zazpi desberdintasunak topatu irudi bien artean. Bukatzen duzunean, irudiak margotu eta moztu ahal dituzu.
a: www.turbulus.com



Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

- Zeruak eta infernuak (Elkar), "Txiliku" Jesus M^a Olaizola Lazkano
- Garen hori (Elkar), Ana Urkiza Ibaibarriaga
- Nirliit (Txalaparta), Juliana Léveillé-Trudel
- Arroz urez (Txalaparta), Mikel Albisu Iriarte
- Esaten dugun argia (Elkar), Karlos Linazasoro Izagirre
- Geldoko Koplak (Totoan), Juan Luis goikoetxea eta Udane Goikoetxea

LITERATURA: UMEAK

- Nolakoa da gure garuna? (Tarttalo), Mia Nilsson
- Ezetz harrapatu! (Tarttalo), Hector Dexet
- Elmer pasean (Erein), David McKee
- Loinatzen loa (Ikaslar), Castillo Suárez García
- Ongi etorri, txikiak (Ikaslar), Mack

Sudokua

7		9				3		8
					8	2		
			5	4			9	
5			4		3	8		
	2				6			
3	4		9					
			1			4	8	
	7							3
			8				7	9

6	7	9	5	3	8	2	1	4
3	1	5	4	9	2	8	7	6
2	8	4	6	7	1	5	3	9
5	2	7	1	8	6	9	4	3
4	3	6	9	5	7	1	2	8
1	9	8	3	2	4	7	6	5
9	6	1	7	4	5	3	8	2
7	5	2	8	6	3	4	9	1
8	4	3	2	1	9	6	5	7

BIZKARGI KAFETEGIA
Euskal Herria Kalea
48160 - Derio (Bizkaia)
94 454 16 55

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Kaxolak

TABERNA GAZTEI
Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

BIDE-GORRI
Txirbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WIFI gunea

Hitzaldiak

Larrabetzu

- > "Literaturaz Berbetan: Uxue Alberdiren *Dendaostekoak* lana. Apirilaren 21ean, 19:00etan, Anguleri kultur etxean.

Ikuskizunak

Derio

- > *Ziaboga* dokumentala. Apirilaren 16an, 19:00etan, Gurea Aretoan.



Zamudio

- > Zinema. Apirilaren 17an, 19:00etan, Gaztestazioan.

Musika

Derio

- > Avalanch. Apirilaren 16an, Baserri Antzokian.



Larrabetzu

- > Domekak Hori Baien: Ibil Bedi. Apirilaren 18an, 18:30ean.

Irteerak

Zamudio

- > Done Jakue Bidearen zati bat. Apirilaren 10ean, 10:00etan, Gaztestaziotik. Izena emateko azken eguna: apirilaren 8a.

Ospakizunak

Derio

- > Liburuaren Eguna. Apirilaren 23an.

Zamudio

- > Liburuen rallya, apirilean. 40 euroko txartelak zozkatuko dira Zamudioko Liburu-dendan gastatzeko. Informazio gehiago, udal-liburutegian.
- > Irakurritako liburuen azoka. Apirilaren 23tik 30era, Gaztestazioan.
- > Udaberri Festa. Apirilaren 24an, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: apirilaren 23a.

Larrabetzu

- > Liburuaren Eguna. Apirilaren 23an.

Tailerrak

Zamudio

- > Txapak. Apirilaren 23an, 19:00etan, Gaztestazioan. Izena emateko azken eguna: apirilaren 22a.

Zu argazkilari

Zure herriko txokorik ederrenei argazkia egin, eta aikortxori@aikor.com helbide elektronikora bidali. Argazkiak hileroko argitaratuko ditugu AIKOR! aldizkarian eta www.aikor.eus webgunean.




Leire Baña (Lezama)

GASOLINDEGI BARRIA

SASINE INDUSTRIAGUNEA LARRABETZU

BIDEKO

ERREPIDEAN BIDELAGUN



Berton 5 mikratan filtratutako
bakterien eta lizunen aurka tratatutako
kalidadeko gasolioa

**Garraiolaria
bazara,
egin bazkide!**

**Partikularra
bazara,
emon izena
deskontua
jasotzeko!**

larrabetzu@hiru.org
T: 629 162 230
www.bidekoaterpe.eus



GASOLIO ONENA, PREZIO EZIN HOBEAN!

STIHL

2021EKO UDAZKENA

**STIHL KONPROMISOA:
ELKARREKIN ATZO,
GAUR ETA BETI**



garaje
AURTENETXE

Lezama
Barrio Arerxalde, 105
94 455 62 66
lezama@aurtenetxe.es

Bilbao
Autonomía, 57
94 427 29 18
bilbao@aurtenetxe.es

Mungia
Pol. Sogean, Pab. 34
94 674 83 62
mungia@aurtenetxe.es

www.aurtenetxe.es
VENTA, REPARACIÓN Y ALQUILER DE MAQUINARIA AGRÍCOLA Y DE JARDÍN